

ARGIA

MARTIN FIZ

MIKEL ARREGI

«Giza Eskubideen
Batzordeak
onartutakoak
Euskal Herriratzea
esan nahi du»

KATALUNIA


«Esquerra Republicana:
txarretik okerrera»

60. ARTIKULUA

Hiru euskal presok
ezin aldegin
gaixotasunaren
itzalpetik

MIKEL ATXAGA

«[EA]ko jendearengatik
izan ez balitz
euskara galdua zen»



«MARATOILARI ONAK
BEREKOIA IZAN BEHAR DU»

01596



9 778402 139093



HAUETAK
OPARIREN BA
ESKURATUKO DUZ
DOHAINI

ANTTON · OLARIAGA

Alukiss



BASOTIK EDANEZ

IDAZLEEN PIZTIARIOA BARRUAN

crein

ALUKISS-BASOTIK EDANEZ

ANTTON OLARIAGA



POSTERRA (63 x 43): GERRA AURREAN ARGIAREN HARPIDEDUN ZEN FAMILIA BAT SUPAZTER ONDOAN.

KIOSKOAN BAINO
%20a MERKEAGO

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ

ANTTON OLARIAGAREN
ALUKISS - BASOTIK EDANEZ

ARGIAREN POSTERRA

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____

2. DEITURA _____ TELF. _____

HELBIDEA _____ POSTA KODEA _____

HERRIA _____ HERRIALDEA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA. _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

Entitatea

Sukurtsala

K.D

Kontu zenbakia

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15

LASARTE-ORIA 20160

HARPIDETZA SAI...

(BEZ barne)

Hego Euskal Herria

12.100 gata

Ipar Euskal Herria

685 librea

Espainia 12.100 gata

Beste Atzerri

15.750 gata


Airez 24.850 gata

Euskal Kulturaren
URTEKARIA...
etxean jasoko da

943 - 37 15 45

Telefonoz ere egin dezakezu harpidetza zenbaki honetara deituz 9etatik 1era eta 3retatik 2etara


- 6. Politika kronika. MIKEL JAUREGI.
- 8. Mikel Arregi: «Eajk benetako herri-eraikuntza egin nahi badu, bertatik hasi beharra dauka». MIKEL JAUREGI.
- 12. Lur jota utzi du Esquerra Republicana Colomen ihesak. XABIER ARANBURU.
- 15. Hamar aholku edo 'manamendu' enplegu bila ari eta etsi ez dutenentzat. XABIER ARANBURU.
- 20. Irisarrin egingo ditu Ondarearen Egunak aurten EKEk euskara gai oinarritzko duela. MIKEL ASURMENDI.
- 22. LIEBEK itsuentzako euskarazko liburuen plangintza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. IDOIA TORREGARAI.
- 24. Maurice Haulon arkitektuak 130 soto erroldatu ditu Baionan. MIKEL ASURMENDI.
- 26. 60. artikuluko baldintzapeko askatasunaren zain dira hiru euskal preso eri. Eritasunaren itzalpetik presoek ezin aldegin. ARANTXA ERASUN.
- 29. Martin Fiz: «Maratoilari ona izateko, berekoia izan behar du korrikalariak». MARTIN AGIRRE.
- 34. Kultura kronika. MIKEL ELORZA.
- 37. Mikel Atxaga: «Eajko jendearengatik izan ez balitz, euskara galdua zen». JON ODRIUZOLA.
- 40. Klaudio Harluxet faszikuluetatik Eusenarako bidean. MAITE ARTOLA.
- 42. Hizkuntza gutxituen filmeak ikusgai Zarauzko Eremuak 96n urriaren 21etik 26ra. ANDER USABIAGA.
- 45. Argitalpenak. MAITE ARTOLA.
- 48. Irrati-telebista. ARRITXU ZELAIA.
- 52. Aukeran. GURUTZE IZAGIRRE.
- 56. Denborapasa.
- 58. Urriko Iraultza nostalgikoa. GABIREL EZKURDIA.




MARTIN FIZ: Gasteizko bere kirol-dendako eserlekuetan adierazi dizkigu maratoilari izatearen argi-itzalak. «Berekoia izan behar da maratoilari izateko» adierazkor batez maratoilariaren bakardadea deskribatu digu munduko txapeldun izan denak. Euskal Herriko krossak ez ditu ahazten, hala ere, kirola bizitzeko modu berezia ei dago hemen. /29



POLITIKA: Orain bi aste EAEko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean hitzartutako erabakiarekin ekin diogu solasaldiari. Mikel Arregi HBren Mahai Nazionaleko kideak argi du akordatutakoak «presoen Euskal Herriratzea» esan nahi duela. Presoez gain, baketzeaz, kale-istiluez eta Ertzaintzaz ere mintzatu da. /8



KLAUDIO HARLUXET FUNDAZIOA: Euskara eta euskal kultura informatikaren aro berriaren moldetara ekartzeko asmoa azaldu zuen Klaudio Harluxet Fundazioak sorreran. Bi urte igarota, egite praktikoen bila gerturatu gara Donostiara. «Eusena» euskal entziklopedi nagusiari begira daude eta urratsetako bat da kaleratu berri duten «Entzikloklük»./40



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria




Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación



ZIENTZIA ETA KULTURA

Martin Gardner



GAIK



KULTURAREN ENIGMAK

(Behiak, zerriak, gerrak eta sorginak)

Marvin Harris




GAIK

Carl Sagan, Thomas H. Huxley, Ortega y Gasset, H.G. Wells, Alfred N. Whitehead, Bertrand Russell, Sigmund Freud, eta beste puntako pentsalarien idazkirik hoberenak, Martin Gardner-ek aukeraturik.

JADANIK KALEAN
ESKATU ZURE LIBURUDENDAN!!

Nola interpretatu matxismoa eta belizismoa antropologiaren ikuspuntutik? Zergatik ez dute judu eta musulmanek txerriak jaten? Zergatik hinduek behiak gurtzen dituzte? Nola sortzen dira mugimendu mesianikoak? Zeinek dira sorgin-ehizaren azpiko arrazoiak? Marvin Harris-ek euskara ezin ederragoan erantzunak ematen dizkigu.



GAIK ARGITALDARIA

IRAKUR- LEAK MINTZO

Soinua, CB Leire Zubeldia baliarraidarrari erantzunez

EGUNOTAN, Baliarrainen abuztuaren 16an musika jaialdi bat zela eta Soinua eta Sonotec enpresen aurka salaketa gogorak egiten dituen gutuna azaldu da hainbat komunikabidetan. Kritikon inguruan, Soinuak ondokoa adierazi nahi du:

— Gertatutakoan Soinuak ez duela errurik izan azaldu nahi diegu baliarraidarrari, eta jaialdi eguna pasa arte antolatzaileekin ez genuela kontakturik izan.

— Sonotec enpresak Baliarraingo kontzertuaren inguruan abuztuan aipamendu hutsa egin ziola Soinuari, baina inolako konfirmaziorik ez ziola egin jaialdi egunaren arratsaldeko hirurak arte. Une horretan, konfirmaziorik izan ez genuenez, lan hori egiteko genituen zailtasunak azaldu genizkien Sonotec-ekoei. Dena den, Soinuarentzat arazoa hamar minututan konpondu zen: Sonotec-etik berehala deitu ziguten beste enpresa batekin jaialdiarena konpondu zutela esanez.

— Leire Zubeldiak eta gainerako baliarraidarrek haserre egoteko arrazoiak izango dituzte, baina, mesedez, inolako errurik ez duena ez deskalifikatu, are gutxiago publikoki.

— Soinua enpresako langileok herrien tamaina eta antolatzaileen ospea kontuan izan gabe, hau da, gure bezero guztiei ahal dugun zerbitzu onena ematen jarraituko dugu, orain arte saiatu eta egin dugun bezala.

SOINUA, CB
ARRASATE (GIPUZKOA)

Zer da alardea?

GERTAERA historikoak eraberritzen dituela eta ekitaldi giza-militar-erlijiosoa dela aipatzean, badirudi denon oniritzia lortzen dela. Baina irailaren 8an gertatu iskanbilei buruz agertutako artikuluetan, oinarriko argibide gutxi irakurri ondoren, eta ohikoa bihurtzen ari diren hitz edo begirada desegoki batzuk nabaritu, nagusiki nere erkideen jaia eta eguneroko frustrazioetatik ihes egiteko denbora-espazioko gunerik aproposena dela diot. Dena den, funtziook beste herrietan ere betetzen dira; baina Hondarribiko kasuan ia bestelakoa da, ezaugarri bereziak bait ditu: izaera militarra —janzkera, armak, jerarkia...— eta erlijiosoa —Novenak, Salve...—, aspektu erritual-sinbolikoak eta, batipat, herritarren identitatearen azkenetariko ikurra da —euskara gutxi erabiltzen delako—. Horregatik, emakumezkoak partehartzaile aktibo modura agertuz gero, gure ideia sistemak irauli egiten dira, txikitatik gutxi gora-behera pareka daitekeen Alardetik egundaino bere giza garrantzia izugarrian eta honen errepresentazioan —emakumezkoak kantineraz edo txalotzen/sukaldean— ikasi egin dugulako. Beraz, aldaketa onartzea kosta egin zait, eta nire konpainia den Gora Ama Guadalupekoan gaia agertzean, Bidasaldeko Emakumeen idazkia irakurri eta gero, dardarez ene baietza azaldu nuen, eskubideen aurrean ausardiaz amore egitea biderik zuhurrena delakoan bainago. Ados ez bazaude uler-tuko dut, baldin eta gizabanakoaren interesak defendatzeko aitzakia ez bada. Konponetak bilatu eta elkarriketa bideak irekiz, zauriak konponduko diren itxaropenean amaitzen dut. Mehatxurik ez, hitz egin bai!

RUPERTO OLASO
HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

H I R U K O

T X I K I A N

Zirikom

Disidentzia heldu gabeko gazte asozial, minoritario eta marjinala omen den multzo soil ezagun baten gauza dela sinestarazi nahi digutenei, manifestazioetan jende adindua gazteekin batera ikusteak ez die on egiten, horrekin, eurentzat asmatutako muntaia ekologiko birtuala hankaz gora joaten baitzaie. Beraz, hori gerta ez dakien eta euren oreka mindu ez dadin, errealitatearen manipulatuzaileak izateaz gain, gezur asma-tzaileak ere behar dute izan. Eta batzuetan, errealitatea aurkeztean asmatzen badute ere, askotan, gezurra agerian eta muntaia erridikuloa suertatzen da. Adibidetzat, Gasteizko Parlamentuaren aurrean ertzainek larrutu Senideakeko jendea. Duela asko gazte izanak zirenez, 'jubilatuen' protestalditzat pasarazi nahi izan dute hedabideetan. Erridikuloa benetan. Eta horrelako kirtenkeriak asmatzeko, ez zen beharrezkoa inongo unibertsitateko lizentziadunak kontratatzea erakundearen komunikazio departamentua osa zezaten, erakundearen arduradunaren edozein ahaidek egin baitzezakeen hainbeste. Eta merkeago.

JOXE MARI OSTOLAZA

ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.

LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.

ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

Kontseilu Editorialeko

Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

Erredakzioa: Xabier Aranburu, Arantxa

Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe

Petrikorena, Arritxu Zelaia.

Maketazioa: Berdaitz Goia.

Dokumentazioa: Ernesto Ibarluzea, Ainhoa Gerra.

Administrazioa: Jasone Larrarte.

Harpidetzak: Olatz Korta, Elena Guinea, Maider Amenabar.

Hedapena: Ixabel Bereziartua.

Publizitatea: Inigo Txintxurreta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz de Durana, Miren Larrarte.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.

pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxe: 37 34 03/36 10 48.

BIZKAIA: Zaballburu 2, 1. ezkerre. 48003

Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxe: 410 37 15.

IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxe: 59 47 60 01.

NAFARROA: Iratxeke Monastegia 70, 3.

ezkerre. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxe: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.

INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Espainiako ardo onaren eguna

PP-REN ekimenez, orain artean Guardia Zibilaren kuarteletan egiten ziren Hispanitatearen Eguneko ospakizunak eremu zibilera igaro zitzaizkigun urriaren 12an. Ekimen horrek euskal gizartearen aniztasuna erakusten omen du, eta hori ez onartzea euskal gizartearen sumintzea omen. Hala adierazi zuen Carlos Iturgaitz EAEko PPren lehendakariak popularrek Amurrión duten egoitzan. *«Euskal herritar eta espainiar garelako sentitzen dugu, eta ez dugu inolako lotsarik hori agertzeko»*, zioen harro Iturgaitzek. Ezta losatu beharrik ere. Senti daitezela euskal herritar, espainiar, europar edo mundutar. Sentimenduak sentimendu dira, horren aurrean zer esanik ez dago. Galdera bat baino ez nieke egingo popularrei: Alemaniara edo Turkiara zoaztenean, nola aurkezten duzue zeuon burua? Euskal herritar eta espainiarizat? Nahiko lan.

DENA den, Iturgaitzek aipatutako «suminaz» jardun nahi dut. Ez dakit PPkoen aukera ez onartzea euskal gizartearen sumintzea lizatekeen. Baina ezin ahantzi urriaren 12a noren eguna den. Guardia Zibilak urte luzetan euskal herritar askoren —bai, askoren— artean ereindako arrastoa galanta da; minez jositako arrastoa. Arin samar baieztatu du Mayor Orejak lehen *«alde hemendik»* zioten lekuetan orain *«zaudete bertan»* diotela. Galde diezaietela azken urte honetan Guardia Zi-



bilak, EAEn soilik, egin dituen 6.000 kontroletan geratutako milaka lagunei. Haiiek bai sentitu sumina, eta batik bat, beldurra.

Ez zuten hemendik ospa egin, ez, baina Intxaurrendoko desfilean bi guardia zibil lurrera erori ziren ondoezak jota. Bilboko La Salveko kuartelean EAEn Espainiako Gobernuako ordezkaria den Enrique Villarek eta bestelako agintari zibil eta poliziaiek dastatutako «Espainiako ardo on» —nongoa ote zen?— ez ote zuten edango.

ETA sumina, baita ere, urriaren 12ko ospakizunen aurrean eta PPkoek —Iturgaitzek berak, Aznarrek— iragan astebu-

ruan bertan autodeterminazio eskubi-dearen inguruan egindako adierazpenen aurrean abertzaleek emandako erantzunetan. Ez da harrizkekoa. Azkenaldion sekulako astakeriak entzuteko tenorea izan baitugu gai honen inguruan. Herri guztiek duten eskubidea dela ulertu nuen nik, NBek berak ezagutzen duen eskubidea. Oker nenbilen antza.

Eta hau guztia gertatzen zen bitartean, Enrique Rodríguez Galindo Francoren hilobia bisitatzen.

MIKEL JAUREGI

GARBIKETA ETNIKO-ETILIKOAK

RAMON Jauregik esan berria du: gaur bizi dugun egoeran autodeterminazio eskubidea erabiltzeak gure arteko garbiketa etnikoa ekarriko lukeela. Autodeterminazioa hain txarra izanik, hala ere aurrera eramango balitz —zauria gertatu baino lehen «tapetena» jartzea deitzen diote horri batzuek— zer gertatuko litzatekeen iragarri babestu du Fernando Savaterrek Jauregi. Alegia, autodeterminazioa gaur bezala segitzearen aldekoek irabazita ezer ez litzatekeela aldatuko, euskal izaerak aurrera jarraituko lukeela;

baina nazionalistek irabaziz gero elkarbizitza asko konplikatuko litzatekeela, galtzaileen erreazioz. Aholkutik meatxura pasata. Hori gutxi balitz, sozialistek Jurgi Oteiza eraman dute Arantzazura, hantxe —«nora zoazte gogorak, oharrak entzun gabe» kantatu zuen Gandiagak hamalau apostoluei begira— hiru hilabeteko diktadura komeni zaigula iragarri dezan: garbiketa sakon bat egiteko. Garbi ditzagun autodeterminazioaren alde mugitzen diren guztiak, eta ondoren izango da posible autodeterminazioa.

PELLO ZUBIRIA



RAFAEL LARREINAREN TARTEA

ZER GERTATZEN ZAIO AJURIA ENEKO MAHAIARI?

Bakeranzko zubia

EUSKALHERRIKO normalkuntza politikoa eta baketzea da herri bezala gure geroa baldintzatzen duen lana. Orain hamar urte sortu zenetik, bakeranzko bidean aurrera egiteko lehenengo lerroan egin du lan EAK. Hasieratik bakea sekula ezin dela enfrontamendutik eraiki esan genuen, bakea zubiak luzatuz lortzen baita, ez lubakiak irekiz.

Elkarrizketarako zubia eraikitzeko oinarri tinkoak prestatzerakoan zeresan handia izan dugu. Oliveriren imotasunari esker, oraindik konpontzeke dagoen Euskalherriaren eta Estatuaren arteko gatazka politikoaren existentziaren ezagutza sinatu zuten Ajuria Eneko Mahaiko alderdiek. Ondoren, Mahaiak Legebiltzarrean ordezkari izan duten alderdien arteko elkarrizketa emateko auke-

ra eraiki behar zuela zehaztea lortu genuen Gobernuaren programan, enfrontamendurako inongo itun frentistaren kutsua ukatuz. Bere jarduera bakea eta berradiskidetzea elkarrizketaren bidez lortzera bideratuz.

Urtarrilean Garaikoetxearen irmotasunak lortu zuen Mahaiko alderdiek honako konpromezua sinatzea: euskal herritar gehien borondatea aintzat hartzea eta legeria borondate horri egokitzea. Ekainean beste zenbait indar politikorekin lortu genuen beste konpromezu hau: ETari elkarrizketa eskaintzea, baldin eta ETak distentsio girorik lortzen lagunduko balu, iragarri (edo gerora egin dezakeen) su-etena luzatuz.

Elkarrizketaren bidez bakerako urratsak emateko premia zubi hori eraikitzeko oinarri finkoak jarri dira. Bidenabar, gure herriaren normalizazio politikorako ere. Eta normalizazio hori nahitaez herritar guztion arteko topagune berriak bilatuz lortuko da.

Aspalditik ari da defenditzen EA kontsentsu politiko berri eta zabalago baten beharra,

bakearen esperantzari atea zabalduko dio. Euskal herritar guztientzat benetako topagune izango den kontsentsu berria, Gernikako Estatuaren prozesutik, edo Estatuaren ez betetzeak desilusionaturik urrundu zirenak herri-eraikuntzara bilduko dituen.

Euskal herritar gehien borondatean, demokratikoki eta bakean adierazia, oinarritutako kontsentsu berria. Borondate hori testu legeletan agertuko dela ziurtatuz. Euskal herritarren borondatea onartzea Ajuria Eneko Mahaikak ere aipatzen du; haruntzago jo behar da, autodeterminazio eskubideak lekurik izango duen kontsentsura. Finean, Gobernuari bakerako bideak jorratzeko aukera emango dion konpromezua, biolentzia defenditzen dutenekin hitz eginez.

Bidea zabalik dago; ibiltzen hastea falta, adostasun-borondatez. Guztion ardura da, baina ENAMena bereziki, zubi hori ibaiaren beste aldera ailegaraztea, elkarrizketa eta berradiskidetze gune izan dadin. Bakeari aukera ematea eskatzen digu herriak.


EAEn Espainiako Gobernuko ordezkaria den **Enrique Villarrek** hitz gogorrak izan ditu EGikoentzat La Salveko kuartelean bildutakoan aurrean: «Gaurko jaia espainiar arrazakeriaren adierazgarri dela esan duten gaztetxoak barka itzazue. Bere jatorriak ukatzeko abaleginetan, jatorri horiek gabe gera daitekeen pertsonarik badago». Ostera, **Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia»** EHEk Donostian deitutako manifestazioan zera azaldu du: «Suediarrek ez dute denborarik galzten Stockholmen suedieraren beharrezkotasuna zuzenesteko, ezta letoniarrek ere letoniarren lurraldetasun hertsia legezatzeko. Hemen barkazioa eskatu behar dugu, eta erdarara pasa».

Jose Maria Aznar Espainiako lehendakariak esana: «Autodeterminazioa eta baketzea lotzea ez da formula baliagarria». **Joseba Egibar** EAjren EBBko bozeramaileak Aznarri erantzun dio: «Espainiako Gobernuak Estatuaren bete behar duela kontuan hartuz, gaur Aznarrentzat sapaia edo gorenena dena, bibar niretzat edo

berri honentzat lurra edo gutxienekoa izan daiteke». **Javier Madrazo** EAEko IU-EBko koordinatzaile nagusiak esan duenez, «autodeterminazioak izutzeko erabiltzen den materia izateari utzi behar dio». Ostera, **Jakes Bortairu** Herriaren Aldeko bozeramailearen aburuz, «Iparraldeko egoeraz edo geroaz mintzatu orduko,

berehala topatzen gara funtsezko arazo politikoekin; hau da, hemen ez dela botere-gunerik».


Beste gai bati helduz, **Jose Antonio Martiarena** EAEko Herrizaingo sailburuordeak zera bota du: «Hernanin eta Oiartzunen jasotzen du Ertzaintzak herritarrengandik laguntza gutxien. Beldurra? Izuak jota daude».



Mikel Arregi, HBren Mahai Nazionaleko kidea eta Gipuzkoako koordinatzailea

«EAJk benetako herri-eraikuntza egin nahi badu, bertatik hasi beharra dauka»

Jarrain urte frankoz jardun ostean, HASira. Eta bertatik, berehala HBra. «Oldartzen» prozesuaren ostean, Mahai Nazionalean sartu zen Gipuzkoako koordinatzaile gisa. Bere burua ez du politikaritzat zestoar gazteak.



Zer balorazio egiten duzu Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak presoan inguruan hartutako erabakiaz?

Egungo egoera dinamika indartsu baten lorpena da. Dinamika horren aurrean klase politikoak mugitu egin behar izan du. Presoen gaia erabat gizarteratua dago, eta gizarateak berak irabazitako borroka da hau. Lehen aldiz

«Ajuria Eneko Mahaiaren helburu bakarra batasunari heltzea da». (Argazkia: Alberto Elozegi).

espainiar espetxe-erakundeetako eta frantziar Estatuko Barne Ministerioari garbi esan zaie presoan eskubiak errespetatu eta hona ekarri behar direla. Batzordearen erabakiaren muina da arazo politiko bati erantzun politikoa eman zaiola. Orain, hitzetatik ekintzetara pasa behar da.

Datozen bilabeteotarako

zer espero duzue? Zer gertatuko da presoekin?

Kontua da azken hitza Madrillgo Gobernuak duela. Berez, ezinbestekoa izango da euskal gizarateak eta Euskal Herriko agente politikoek presioa egitea eta arlo praktikora pasatzea.

Zerorrek esan duzu azken bitza Madrilek duela. Badirudi, baina, Gasteiz-

ko Legebiltzarrak bitzar-tutakoari kasu egiteko asmorik ez duela. Zerbait gebiago egitea pentsatu al du HBk?

Borroka honetan protagonismoa beste erakunde batzuek izan behar dute: Senideak-ek eta AABk. HBk eremu zehatz batzuk dauzka lantzeko, nagusiki erakundeak: Gasteizko eta Iruñeko

legebiltzarrak, batzar nagusiak, udalak... Gure dinamika hor oinarritu nahi dugu, nahiz eta kaleko dinamikan ere hartuko dugun parte.


Orain artean HBk, eta Ezker Abertzaleak oro bar, presoak bemen batzeaz baino ez du hitz egin. Agirian, ordea, gerturatze kontzeptua ageri da eta Jose Antonio Ardanazak esan du txostenean jasotakoak ez duela Euskal Herriratzea esan nahi.

Ahalik eta gertuen dio txostenak, eta ahalik eta gertuen ekartzeak Euskal Herriko kartzeletara ekartzea esan nahi du. Eta Euskal Herrian bost espetxe ditugula kontuan hartuz, horietara ekartzeak batzea ekarriko luke.

Gu ez gara hasiko presoak Euskal Herriratu edo gerturatu egin behar diren eztabaidatzen. Presoek Euskal Herrian egon behar dute. Besteak beste, preso politikoak direlako eta, preso politikoen kolektibo bat osatzen dutenez, eskubidea dutelako Euskal Herrian bizi dugun egoeraren inguruan erabakiak hartzeko.

Gasteizko Legebiltzarrak presoan gaiarekin 1995eko abenduan egin-dako eztabaidan eta ondorengo bozketan HBk ez zuen parte hartu. Oraingoan, aldiz, bai. Zer dela eta aldaketa?

Eztabaida hura eta ondorengo erabakia antzuek ziren oraingoaren aldean. Oraingoak edukiak ditu bere baitan. Gainera, oraingoak salaketa jarri du mahai gainean, espainiar espetxe-er-



«Normalkuntza politikoa dagozkigun eskubideak bete eta errespetatetik etorriko da». (Argazkia: Alberto Elozegi).

kundeei zuzendua. Horrez gain, frantziar Estatuko Barne Ministerioari eskaera zehatza egiteak arazo politiko baten aurrean gaudela esan nahi du, eta presoan egoera herri honen egoeraren isla baino ez dela.

Orain urtebete edo bi urte presoan egoeraren inguruan egiten ziren diskurtsoak ez dira oraingo berak. Zer gertatu da?

Gizartearen presioak eragin handia izan du. Espainiar Estatuak presoan kolektiboa suntsitzea helburutzat hartu zuenean, suntsiketa-disei-

nuan EAJk partehartze handia izan zuen. Kontuan hartu PP eta PSOE estatu mailako indarrak direla eta EAJ, batik bat, Hegoaldean oinarritutakoa. Ondorioz, EAJk sekulako presioa jasan du. EAJk egunero hemen egon behar du, eta Euskal Herriko kaleetako aldarrikapena zein den ikusten du. Dena den, EAJren jokoa zein den argi dago: pilota bizkarrera etortzen zaion bakoitzean, pilota Madrilera luzatu besterik ez du egiten.

Juan Mari Atutxak esana: «Baliteke presoak burbiltzeak ETak Ortega Lara aske uztea eragitea».

Ortega Lararen arrestoak eta presoek bizi duten egoerak zerikusi zuzena dute. Euskal Herriak preso politikorik ez

HAMARREKOA

JOSEBA EGIBAR

«Ura eta olioak nahasi ezin»

ITZIAR AIZPURUA

«Euskal erresistentziak eman duen eta duen borrokalari nekazezina»

ODON ELORZA

«Errepresioa ez da bidea»

CARLOS GARAIKOETXEA

«Bi ta Bi, Bost»

JON SALABERRIA

«Euskal gazte mugimenduaren aitzindari leiala»

JONAN FERNANDEZ

«Demokraziarik gabe bakerik ez»

JAIME MAYOR OREJA

«Fragaren oinordeko zapaltzailea, Fragaren ofizio ohian»

XABIER ARZALLUZ

«Lehenengo alderdia, gero aberria»


JESUS EGIGUREN

«Kalean usotuta dabilen etxeko otsoa»

RUFÍ ETXEBERRIA

«Abertzale eta ezkertzele sutsua, borrokagile eta langile bikaina»

«Presoak etxetik ahalik eta gertuen dio Giza Eskubideen Batzordearen txostenak, eta ahalik eta gertuen Euskal Herrian da»



«Zilegi den borroka, herri honen borroka, oztopatzen ari da Ertzaintza parean jarriz». (Argazkia: Alberto Elozegi).

balu, Ortega Lara ez litzateke dagoen lekuan eta egoeran egongo. Nahiz eta ETak zeresan handia duen, presoak Euskal Herriratu eta presoeri zor zaizkien giza eskubideak errespetatuz gero, Ortega Lararen egoeraren konponbidea etor daiteke.

Giza Eskubideen Batzordean IU-EBrekin, EAJrekin eta EArekin batera txostena onartu ostean, EAJtik zenbait 'lore' bota dizkizute. Nola ulertu behar dugu hori?

PPrekin hitzarmena duela kontuan hartuz, HBrekin batera akordio bat lortzeak presiorik ekarri dio EAJri, batik bat Espainiako botereen eta PPren aldetik. Zentzu horretan, EAJk bere patri espainolei nolabait justifikatu behar izan die akordio

hau nola gauzatu den. Eta horretarako, HBren nolabaitteko mugimendu bat saldu nahi izan du. Guk, baina, argi esan behar dugu herri honetako arazoei muinetik heltzeko prest dagoenarekin aurrera jotzeko inolako konplexurik eta beldurrik ez dugula. Ezker Abertzaleak ez du protagonismorik nahi. Normalkuntza politikoranzko urratsak ematea baita gure helburua.

Hori kontuan hartuz, zer eskatzen diezue gainontzeko indar politikoei?

Estatuak Euskal Herria espainolizatzeko darabil EAJ,

eta EAJ zurrumbilo horretan murgildu da. Historian zehar, Estatu egoera ez-egonkorretan egon denean, EAJk Estatuarekin bat egin du eta, ahal duen neurrian, babesa eman. EAJ Euskal Herria herri bezala defenditzeko asmotan badabil, Madrilekin dituen harremanak eten behar ditu eta euskal herritarroi zor zaizkigun eskubideen errespetua eskatu Madrili. Benetako herri-erakuntza egin nahi baldin bado, bertatik hasi behar du. Normalkuntza politikoa eskubide horiek bete eta errespetatetik etorriko da. Oste-

ra, onartezina da EAJ azkenaldion egiten ari dena: sosen, botere-eremu baten edota platerkada lentejaren truke hitzarmenak egin espainiar Estatuarekin.

Kanpotik begiratuta, nola interpretatzen dituzu Ajuria Eneko Mahaiaren baitan azkenaldian sortutako desadostasunak?

Mahaiaren azken bilerek eta orain Ardanzak bilera atzeratu izanak argi erakusten dute Ajuria Eneko Mahaiaren helburu bakarria batasunari heltzea dela. Mahaiak bere bakegintzarako oztopo bilakatu da. Bakegintzan aurrera egiteko eremu bat baino gehiago, mugimendu independentistaren kontrako eremu dugu egun. Garai batean euskal gizartearen erreferentzietako bat izan bazen

«Euskal Herriak preso politikorik ez balu, Ortega Lara ez litzateke dagoen lekuan eta egoeran egongo»

«Herri honetako arazoei muintetik heltzeko prest dagoenarekin aurrera jotzeko inolako konplexurik ez daukagu»

ere, erreferentzia hori agortzen ari da.

Alternatiba Demokratikoa gizarteratzeko bigarren faseari ekin berri diozue. Bakegintzarako oinarriztat hartu duzuen arren, berau Ezker Abertzalearen baitan soilik geratu den sentsaziorik ez al duzu?

Euskal herritarroei demokrazia ukatu egiten zaigu eta arrotzek nortasun arrotza inposatu nahi digute. Egun, sektore zabal bat dago Euskal Herriak nortasun propioa behar duela uste duena. Baina autodeterminazio eskubidea armen bidez debekatu, sektore horrek ez du eskubiderik bere proiektua gauzatzeko. Eta hori ukatzen zaigun artean eta euskaldunei zer izan nahi duten erabakitzeke eskubidea ematen ez zaien artean, normalkuntza politikorik ez da egongo.

Hori guztia dela-eta, hurrengo kurtso politikorako dugun eginbeharririk garrantzitsuena da Alternatiba Demokratikoa areago gizarteratzea. Mahai gainean dagoen proposamen bideragari bakarra baita bakegintzan aurrera egiteko. Bakea posible da, baina bakea edukiekin lotua dago, eta eduki horiek Alternatiba Demokratikoan jasotzen dira. Akasoa da Ezker Abertzaleak soilik ezagutzen dituela edu-

T A N T O A

Txinaurri gaztea


HASTEKO esango dut txikitandik ezagutzen dudala Ertxin. Ez, ordea, Mikel Arregi; guretzat beti Ertxin izan delako. Bere garaian, Jarraikide ere izan ginen, baina Ertxini buruz hitz egiterakoan ezin ahantz ditzakegu bere lehen-lehengoa joera edota zaletasun haiek. Izan ere, mutil kozkortzen zihoan heinean, frontoian ikusi zitekeen edozein egunetan eta edozein ordutan. Pilotazale amorratua, ez baitzen frontoitik irreteten, pilotan guk erakutsi geniola aitortzen ez badu ere. Mahai Nazionalakide den bezalatsu izan zitekeen pilotari profesional edo mendigoizale. Mendizaletasuna txikitandik dator kion joera baita. Inguruko nahiz haruntzagoko mendiak zeharkaturik dauzka Messner baten antzera. Bizitza politikoa tarteren bat eskaintzen dionean, beti egingo

dizu ihes mendi aldera amasa hartzeko asmoz edo.

Baina ororen gainetik, Ertxinen kezka nagusia euskara da. Euskararik gabe urik gabeko arraina bezala sentitzen delako. Arnasa hartzeko ere euskara behar du-eta biriketant. Berarentzat ez da nahikoa euskaldun izatea edota euskaraz mintzatzea, euskaldun kontzientzia edukitzea baino. Euskararik gabeko Euskal Herria intxaurrek gabeko intxaure-azala litzatekeelako.

Bizi guztian pare bat zigarrero ere erreko ez zituen euskaldun iaioa eta petoa da Ertxin. Txinaurria bezain langile eta erbia bezain ziri-sartzaile eta aldartetsua. Lagunartea maite du eta bertsolari ona da, baina bertso txarrak botatzen dituen horietakoa —zurikerian ez gaituk hasiko—.

28 urte egin berriekin, euskal labela duen gazte euskal-



Mikel Ibarra
Euskal preso politikoa

dun eta abertzalea da. Bera ezagutzea eta bere lagun izatea etxeko produktuak dastatzea bezala izan da beti niretzat. Erdi kaletar, erdi baserritar. Orain erdi zestoar, erdi donostiar. Baina beti txinaurria: gaur hemen, bihar han. Gelditu ere egin gabe.

Kalean txima narrats eta jertse marradun batekin doan mutil bat zeharkatzen baduzue, ez zalantzarik egin: Ertxin da.

ki horiek. Horregatik ezagutarazi nahi dugu alternatiba, beronen oinarri diren eskubide demokratikoak ez baitira Ezker Abertzalearenak; euskal herritar guztioi zor zaizkigun eskubideak dira.

Eta nola gauzatu duzue gizarteratze hori?

Guk ez dauzkagu besteek dituzten bitartekoak. Baina beraiek ez duten giza-sektore egituratu zabala daukagu; militantzia tinko eta sendoa.

Kaleko istiluak izugarri areagotu dira azken hilabeteotan. Zerk eragin du areagotze hori?

Kale-borroka beti existitu da hemen, nahiz eta batzuek fenomeno berriztat aurkeztu nahi duten. Egungo egoera politikoa, sozial eta kulturak, gatazka ez konpontzeak

eta guri dagokigunari buruz guk erabaki ezin izateak, egonezina sortzen du gizartereko sektore askotan. Eta egonezin horrek erantzun jakin bat: kale-borroka pizkundea. Indarkeria-adierazpenok arazo politikoa baten sortzen ditu, eta ondorioz, borroka hori borroka politikoa da. Normalkuntza politikorako urratsak ematen ez diren artean, kale-borroka bere horretan jarraituko du, borroka armatuak jarraituko duen bezala. Jende asko baitago herri honen izaerarekin eta eskubideekin konprometiturik eta borrokarako prest.

Kale-istiluek, azkenean, Ezker Abertzaleari egingo diotela kalte esaten duenik ere bada.

HBk, maila politikoa, agian nolabait ordain dezake. Baina herri bati bere eskubideak arma bidez debekatzeko zaizkion artean, borroka guztiak dira zilegi.

Emaguzu Ertzaintzaren eta Ezker Abertzalearen artean egun bizi den barreraman gaiztoa konpontzeko soluzioa.

Ertzaintza EAJren polizia politikoa bilakatu da eta indar okupatzaile espainolen funtzio bera hartu du. Ertzaintzak egin behar duena da partetik kendu. Gatazka Euskal Herriaren eta espainiar Estatuaren artekoa da, eta partean jarriz, zilegi den borroka, herri honen borroka, oztopatzen ari da Ertzaintza.

MIKEL JAUREGI

Azken 20 urteotako krisirik larriena du oraingoa Kataluniako alderdi independentistak

Lur jota utzi du Esquerra Republicana Colomen ihesak

A

ngel Colomek, Pilar Raholak eta Esquerra Republicana de Catalunyako beste zenbait buruk alderditik aldegin izanak eta beste erakunde politiko bat sortzeko azaldu duten asmoak zur eta lur, baita haserre ere, utzi ditu Kataluniako independentista gehienak.



«Alderdia zatituta utzi du Angel Colomek, kargu publikoak berarekin eraman eta zorrak ERCri utzi».

ESQUERRA Republicana de Catalunya (ERC), Francesc Macià eta Lluís Companysen alderdi historikoa, azken 20 urteotako krisirik larrienak jota dabil. Lehenbiziko aldia da horrelakorik gertatzen dena: idazkari nagusiak —Angel Colo-

mek-, hainbat buruzagik eta hautetsik —Pilar Rahola tartean— alderditik aldegiten dute biltzarrerako hilabete t'erdia eskas falta denean. Bidean, beste erakunde bat sortzeko asmoa azaldu dute. Independentziaren aldekoa, sozialdemokrata

kutsukoa eta zentro-ezkerreko esparru politikoan arituko dena, horiek izango omen ditu ezaugarriak alderdi berriak.

Danbateko itzela izan da Colom, Rahola eta gainerakoen erabakia; eta ez ERCrentzat soilik, Kataluniako

ezker independentistako jende gehienarentzat baizik, zenbaitek horrelakorik bazetorrela sumatzen zuen arren. Esquerra Republicana gertatutakoa ulertzeko atzera jo behar da, Colom alderdiko idazkaritza nagusia eraman zuen prozesua

aztertu. Lleidan, 1989an, egin zuen ERCK 17. Biltzarra eta orduan bereganatu zuen Colomek idazkaritza. Eztabaida eta enfrontamendu bizian aritu ziren biltzar hartan garaiko idazkari nagusia, Joan Hortalak (egun CDCn dabilena eta Bartzelonako Burtsaren presidentea) eta Angel Colom. Honek zenbait buruzagiren laguntza izan zuen: Josep Lluís Carod-Rovira, Heribert Barrera, Jaume Rodri edota Josep Maria Reguent-ena, gerora denak Colomen aurkariak izan badira ere.

Lleidako biltzarra

JOAN Hortalak eta bere jarraitzaileek galdu zuten, nabarmen galdu ere, Lleidako Biltzarra. Aldegin egin zuten alderditik. ERCrentzat garrantzizkoa izan zen kongresu hura, sendotu egin baitzuen nortasun independentista, lozorrotik irten eta gazte askoren erreferentzia gune bihurtu. Lleidako jautsiak 'modan' jarri zuen ERC, baita independentista sutsuenen kritikak jasotzeko ere. Moviment de Defensa de la Terra (MDT) eta Catalunya Lliurek ekin zioten bereziki Esquerrari. Borroka armatua gaitzestea, jarduera instituzionalari gehitxo atxikitzea eta gai sozialetan epelegi aritzea leporatzen zioten Colomen alderdiari.

Hala eta guztiz, gorako bidean zebilen ERC. Zentro ezkerreko independentistak, baita ezker-ezkerrenekoak ere Esquerrara biltzen ziren. Eta 1991n Terra Lliure erakunde armatuaren sakanaketa lortu zuen ERCK, Angel Colomen bitartekaritza medio. Terra Lliureko buruzagi gehienak eta ehun bat ekintzaile Esquerran sartu ziren, independentista es-

Ba ote du etorkizunik ezkerreko nazionalismoak?

ESQUERRA Republicana astindu duten gertakari tris-teok direla eta galdera berbera dabil askoren ahotan: ba ote du etorkizunik ezkerreko mugimendu abertzaleak Katalunian? Ez da erraza galdera honi erantzutea. Iku-sitakoak ikusirik, eta iraganean ere antzekorik gertatu izan dela kontuan izanik, oso baikor ibiltzeko arrazoi gehiegirik ez da antzematen.

Ezkerreko mugimendu sozio-politiko aurrerakoia, alternatiboa, katalanista, independentista eta aldi berean INDEPENDENTEA, hau da, zentro-eskuinarekin loturarik ez duena gauzatzea ez da lantegi samurra izango. Orain artean, hauek izan dira Kataluniako ezkerreko abertzaletasunaren aukerak: Convergencia i Unioaren kontzientzia kritiko eta zaratsua (behar diren ñabardura guztiak erantsiz) izan ala sekta moduko erakundetxoak sortu, iritzi publikoan eragin eskasa dutenak eta elkarren artean etengabeko liskarrean aritzen direnak.

Kataluniako ezker nazionalistak, ez parlamentarioak ez estra-parlamentarioak, ez du jakin alternatiba aurrerakoi eta katalanistarik bideratzen eta gauzatzen, Kataluniako errealitate sozialaren konplexutasuna ulertzen, herritarren benetako arazoei arazoizko konponbideak aurkitzen. Orain arte zail izan dena ez du errazago bihurtu ERCren hausturak.

tra-parlamentarioak biziki asaldaraziz. Hazkunde kuantitatibo eta kualitatibo haren gailurra 1992ko hauteskunde autonomikoak izan ziren. Kataluniako Parlament-eko hirugarren indar nagusia izatea lortu zuen Esquerrak, PSC eta CIUren segidan.

Geroz eta gaiztoagoa giroa

ITXURAZKO sendotze etengabekoaren lapiko hartan bestelako saltsarik ere bazebilen, ordea, eta 1995ean irakin zuen. Aldez

aurretik ere aldegin zuten zenbait militante ezagunek. Pere Bascomptek, adibidez, Terra Lliureko buruzagia izanak, preso independentistak bergizarteratzeko ERCK zerabilen politikarekin bat ez zetorrelako. Garai hartan, 1993an, Pilar Rahola (Angel Colomen super-fitxajea) jauntxo bere gazteluan bezala zebilen ERCn. Diputatua zen Espainiako Kongresuan, inon diren tertulia saioetan parte hartzen zuen eta edozertaz hitz egin: politikaz, Bartzelonako Futbol Klubaz edo emakumeen

Kataluniako Parlament-eko hirugarren indarra izatea lortu zuen ERCK 1992an, PSC eta CIUren segidan

askapenaz.

Colomek eta bere ingurukoek estu kontrolatzen zuten alderdia, baina konforme ez ziren batzuen iritziak ere hasi ziren kaleratzen. Eta eztabaidak hiru kritikoren aurkako diziplina espediente bilakatu ziren 1995ean: Jaume Rodri, Carles Bonet eta Xavier Sans. Txarrera egin zuen giroak. Ordu arte banaka eta gutxi batzuek egiten zituzten kritikak; taldeka eta jende ugari ordu ezkerroztik. Barne demokraziarik eza salatzen zuten kritikoen, Colomenganako gurtze jarrera, Raholaren *vedettismoa*, ERCren ezkerreko izakeraren desitxuraketa. Jordi Pujolen alderdiaren abar erradikala ematen zuen Esquerrak. PPK ERCri hirugarren postua kendu zionean Kataluniako Parlamentean are okerragoa bihurtu zen giroa. Eta 1996 izan da urte erabakigarria, Esquerrak fronte guztietan atzeraka egin duena.

Alderdi barruko korronteak

EGOERA ikusirik, alderdiko barne korronteak osatu eta eratu egin ziren. Angel Colomen aldekoaz aparte Josep Lluís Carod-Rovira kritikoren ingurukoa da indartsuena. ERCren bozeramailea da Carod-Rovira Parlamentean eta hurrengo biltzarrean alderdiko idazkaritza nagusia bereganatu nahi luke. Carles Bonetek gidatzen duen taldea ere (Alternativa Republicana) hortxe dabil; baita historikoak ere (Heribert Barrera, Marc Aureli Vila) eta 'hirugarren bidea' deritzaiona. Colomen laguntzaileak izanak dira azken hauek, baina idazkariari bizkarra eman ezizioten, ofizialista eta kritikoen arteko

■ Bere laguntzaile izandako batek dioenez, maiatzean hasi zen Angel Colom alderdiaren haustura prestatzen

adostasuna gauzatzeko asmotan.

Nahasia benetan giroa. Uztailaren 16an uko egin zion Colomek idazkaritzarako berrautaketari. Trikimailutzat jo zuten jokaera hori zenbait kritikok, denbora irabazi eta bere jarraitzaileak biltzeko amarrua. Ukatu egin zuen Colomek inongo azpijokotan zebilenik. Irailaren 10ean, «La Vanguardia» egunkariari eskainitako elkarrizketan adierazi zuen Colomek «*independentziaren aldeko proiektua burutzen segitzeko prest*» zegoela. Idazkari karguan jarraitzeari ez ziola uko egingo, hori ulertu zuten askok. Orain ikusi da, ordea, alderdiaren zatiketa ari zela prestatzen Colom. Bere laguntzaile izandako batek dioenez, maiatzean hasi zen prestatzen ERCren haustura.

«Crida»tik ere hala moduz aldegin

ETA kritikoeekin darabilen lehia galdu egin dezakeela sumatzean, ihes egin du Colomek. Ohi duen moduan gainera. «Crida a la Solidaritat» erakundeko buruzagia zenean ere horrelatsu aldegin zuen: kargu publikoak berarekin, alderdia zatitua eta zorretan itoa. Ordezkaritza instituzionalaren puska handia kendu baitio ERCri zatiketak. Kataluniako Parlamentean bederatzi ordezkarikatu orain; lehen, 13. Esquerratik aldegin duten lau parlamentariak, Colom ere barne, Talde Mistoan arituko dira aurrerantzean. Bartzelonako Udalean, be-

rriz, ordezkaririk gabe geratu da ERC, Pilar Rahola eta Agusti Soler ere Colomen baitakoak baitira.

Espainiako Kongresu eta Senatuan, beste horrenbeste: ez Raholak ez Colomek ez dute ERC ordezkatuko. Bartzelona eta Gironako Diputazioetan ere galdu du Esquerrak ordezkaritza osoa, baita Kataluniako Irrati-Telebistaren Kontseiluan zuena ere. Zenbat alkatue eta zinegotzik egingo duten bat Colom eta abarrekin ikusi behar orain. ERCren zuzendaritzak kargu guztiak itzultzeko eskatu die, nahiz eta jakin badakien legeak ez dituela horretara behartzen. Eta zatiketageleek ez dute kargurik uzteko asmorik, ez baitituzte beren buruak 'transfuga'tzat jotzen, alderditik aldegitua beste erremediorik izan ez duten abartzat baizik.

Honenbestez, ERCren izenean eskuratutako kargu publiko guztiei eusteko legitimitasunik badutela diote zatitzaileek, 1995ean 'Kode Etiko'a sinatu zuten arren. Esquerratik aldegitokotan, «*dela arrazoi ideologikoengatik dela diziplina arazoengatik*» kargua alderdiaren esku utziko zutela agindu zuten sinatzaileek, Rahola ere tartean. Diruarena ere oso kontuan izateko gaia da. Bostehun bat milioi pezetako zorra metatu izan du ERCK azken urteotan eta alderdian geratu direnek, soilik, egin beharko diote aurre orain.

PACO SOTO


MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Hauteskunde eguna Nikaraguan

URRIAREN 20an bi milioi herritarren botoak eurenganaten ahaleginduko dira Nikaraguako 35 alderdi politiko. Bi dira, soilik, hauteskundeok irabazteko benetako aukerarik duten erakundeak. Daniel Ortega presidente izanaren Fronte Sandinista, batetik, eta Managuako alkaterean —Arnoldo Alemanen— Alianza Liberal bestetik. Boto intentzioari dagokionez, paretsu dabilta biak. Azken inkesten arabera, % 30 inguru jasoko luke bakoitzak. Oso urruti dira Alderdi Kontserbadorea eta Camino Cristiano erakunde ebangelista. Bi hauteskunde boto intentzioa % 5 ingurukoa da. Dudarik gabe, zalantzan direnen botoak izango dira, finean, erabakigarriak. Gogora dezagun 1990ean erabat huts egin zutela inkestek, FSLN irabazletzat jo zutenean.

ALIANZA Liberal somozismo zaharraren ordezkaritza da. Antisandinista historiko gehienek laguntza du, baita Miamin bizi diren nikaraguarren dirulaguntza jasotzen ere. EEBBetako Alderdi Errepublikarraren babesik ere badu. Fronte Sandinistak, berriz, programa zuhurra aurkeztu du ekonomia alorrean, jabeago pribatuari erabateko errespetua adieraziz. Alor sozialean estatuaren esku-hartze tinkoa proposatzen dute sandinistek, gosete eta izurritei aurre egin ahal izateko eta jakiak ziurtatzeko herritarrei. Ez da huskeria jokoan dagoena: neoliberalismorik gogorrena edo sentsibilitate soziala duen gobernua.

NIRE pronostikoa honako hau da: Aleman somozistak bereganatuko du Nikaraguako presidentzia, eskuineko boto guztiak bilduko baititu bigarren errondan. Alabaina, FSLN izan liteke parlamentuko talde nagusia, zerrenda askotan sakabanatua baitago eskuina. Ezker aldetik, berriz, Sergio Ramirezen Movimiento de Renovacion Sandinista da, soilik, FSLNri kalterik egin liezaiokeena. Baina inkestek diotenez, botoen % 2 baino gehiagorik ez du bilduko alderdi honek. Ikusteko dago, azkenik, hauteskunde eguna lasaia izango den ala ez. Hainbat talde armatu baitabil iparraldean nekazariak izutzen, sandinistek botoa ematen badiete hil egingo dituztela mehatxatuz.



JOSU PERALES
Analista politikoa

Hamar aholku edo 'manamendu' enplegu bila ari eta etsi ez dutenentzat

Gazteria eta enplegua elkarrekin topo egin ezinik


Gaztaroa eta lanbide txukun samarra aurkitzeko aukera elkarren aurkariak bihurtu dira Hego eta Ipar Euskal Herrian; gainera, dio James Petras soziologoak, Europa osora eta EEBBetara zabaltzen ari da prozesua. Nolanahi ere, lana aurkitu ahal izateko zenbait aholku interesgarri ere bada: lan bila dabilenaren 'hamar manamenduak'.

GAZTETU egin da pobrezia Europan. Jubilatuta direnek bizimodu oparoa dutenik ez du adierazten datu honek, ezta langile edadetuena pagotxa denik ere. Gaztea izateak are zailagoa egiten duela, baizik, bizimodua. Hego Euskal Herrian, adibidez, 25 urte arteko gazteen erdiak kasik, % 46, langabezian dira. Gainerakoei dagokienez, % 5ak du soilik lan hitzarmen finkorik eta beste % 45ak, hala moduzkoak. ELA sindikatuko Gazteriar Saileko arduradunak, Xabi Anzak dioenez, ondorioak begi bistakoak dira: «Gazte jendearen % 95ak ezin du inolako bizi-proiekturik gauzatu; ezi-

nezkoa zaie gazteei gurasoen etxetik aldegitzea, etxea erostea, neska edo mutil lagunarekin bizitzea».

James Petrasen txostena

EGOERA paradoxikoa, inondik ere, Hego Euskal Herriak sekula izan duen belaunaldirik prestatuena baitu orain 25 urte azpitik dagoena. Horrela dio estatistikak: inoiz ez da izan horrenbeste gazte titulu unibertsitario baten jabe, horrenbeste hizkuntza dakienik, hainbat master eta post-gradu ikastaro egin duenik. Lan merkatuak errezeloz hartzen ditu, ordea. Hartzen dituenen.



Lan finkoa dutenen eta ez dutenen arteko lubakia belaunaldien arteko hausturarekin bat dator, James Petrasen iritziz.

Gehienetan lantegietako atearak itxi egiten dizkiete, esperientziarik ezaren ai-

tzakiatan. Eta zabalduz gero, ez dira paradisuaren atearak gazteari eskaintzen zaizkio-

Hamar aholku

Lan bila bazabiltza, hona hemen kontuan izan beharreko 'hamar manamenduak':

ARAKATU, miatu, behatu gabeko zokorik ez utzi. Kurrikulum argiak eta laburrak prestatu.

TALDEKA ibili ehi-zean, lan bila alegia.

ZEURE enpresa sortu; bada lagun zaitzakeen erakunderik.

IBILBIDE alternati-
boak jorratu, zehar-
kako bideei ekin. Zure
helburura hurbilduko
zaituen lanpostuari ez
muzinik egin, egokie-
na ez iruditu arren.

MERKEALDIETA-
RAKO prest izan, hots,
zure kualifikazioaren
azpitik diren lanbi-
deetan aritzeko prest,
momentuz bederen.


PAGOTXA bailizan
eskaini zure burua.
Mesedea besterik ez
dakarkio enpresariari
zu kontratatzeak.

ELUR pilotaren sista-
ma erabili. Ez zatoz
lan eske, aholku eske
baizik. Baina eskertu-
ko zenuke beste hiru
enpresariaren izenak
emango balizkizute.

ZEURE kasa jardun,
batez erę kazetaritzan,
argazkigintzan...

INTERIM edo bi
lanbideren arteko tar-
tea aprobetxatu, ikas-
teko adibidez.

KURRIKULUM ego-
kia prestatu; sekula ez
asmatu ez daukazun
titulu-esperientziarik.



«Kurrikulum biltegia». Lana aurkitzeko ezinbestekoa da kurrikulum argiak eta txukunak prestatzea.

nak. Eta etxe barruan ere badu eraginik lan merkatuaren bilakaerak.

James Petras Estatu Batuetako soziologo ezagunak orain hilabete batzuk argitaratu zuen «Zer gertatu da Espainian?» izeneko lana. Bertan azertzen du Espainiako lan merkatua PSOEk agintea eskuratu zuenetik, hots, 1982tik. Lana kaleratu eta berehala irabazi zituen hauteskundeak PPK, baina egoerak lehengo berean dirau eta datuak ez dira, onerako bederen, ezertan aldatu. «Tentsio giroa nabarmena da familietan seme-alabak 30. urtera hurbiltzen ari direnean», dio James Petrasek, «gurasoek fakturak ordaindu behar baitituzte, etxea garbitu eta beren kontsumo maila murriztu. Ge-

roz eta haserreago dabilta gurasoak. Batzuetan seme-alabei leporatzen diete lanik aurkitu ez izana; beste batzuetan sistemari egozten diete aukerarik ez eskaintzea gazteei».

Kezkarik nagusiena, dio Petrasen txostenak, honako hau da: zer egin gurasoak hil edo enplegurik gabe geratuz gero? 'Ongizate' sistema honen oinarria, bestalde, gurasoek alde aurretik gordetako dirua da. «Gaur egungo belaunaldia atzo bere gurasoek lortutakoari esker bizi da», diosku Petrasek. Baita beste hau ere: «Gorako bidean etengabe ari ziren bi belaunaldiren amaiera heldu da». Ondorio soziologikoa: helduak egoerari egokitu zaizkio, eta gazteek ez dute ez adorerik

ez indarrik mugimendu sozial kementsurik sortzeko. Individualismoaren aroa heldua da, norbera bere eltzeari begira, eta kitto.

Zertarako aritu naiz ikasten?

HEGO Euskal Herriko eta Espainiako egoeraren oso antzekoa da Iparraldeko eta Frantziako gazteena ere. «Le Nouvel Observateur» aste-kariak orain gutxi plazaratu zuen txostenak depresioak eta ilusiorik ezak jotako gazteria azaldu zigun. «Nire gazte denborako asteburu eta oporraldi guztiak bertan behera utzi izan ditut ikasketak amaitzearren. Zertarako? Bada 30 urtetara heldu eta gurasoen etxean segitzeko. Dozenaka kurrikulum bidali ditut bara eta bona. Emaitza: lan-elkarrizketa bat zortzi hilabete-tan. Bat bakarra. Nire doktoretzak beldurra ematen die enpresariei» dio Lyongo gazte batek.

«Gaurko belaunaldia atzo bere gurasoek lortutakoari esker bizi da»

JAMES PETRAS

Bidasoaren bi aldeetara egoera paretsua, beraz, eta oso antzekoa administrazioen ezina edota utzikeria ere. Ez Frantziako ez Espainiako enplegu bulegoek ez diote gazteriari lanik aurkitzen. Unibertsitateetan sortu izan diren bulegoek, berriz, inor gutxi jarri dute lanerako bidean. Adibide negargarri bat: Frantziako 'Scuio' erakundeak (Unibertsitateko Informazio eta Norabidetza Zerbitzuak) funtzionari bakarra dauka 18.000 diplomaturen lan eskariak bideratzeko. Eta asteen bi orduz izaten da zabalik bulegoa!

Panorama iluna, 20-30 urte bitarteko belaunaldi osoa frustraziora eraman dezakeena. Edo irudimena zorrotzera. Bigarrena hautatuz gero, Patrick Fauconnierrek «Le Nouvel Observateur» en argitaratutako gomendioak oso interesgarriak lirateke lan bila dabiltzanentzat. Lehenbizikoa: arakatu, miatu, haztatu, aztertu eta aukera denak goitik behera behatu. Kurrikulum argiak, laburrak prestatu (ordenadorez eta testu tratamenduan) eta lantegietara bidali.

Taldeko ehiza

BIGARRENA, 'taldeko ehi-za'ri ekin. Lan bila bazabiltza, bakarka baino aukera hobeak izan zenitzake taldeka. Kontseiluak, informazioa, fitxeroak... errazago aurki ditzakete elkar lanean bizpahiru lagunek bere kasa ari denak baino. Frantziako enplegu agentziak -ANPEk- biziki gomendatzen du sistema hau. Tolosa hirian, adibidez, Girafe (Enplegurako Ikerketa Taldea) izeneko erakundeak sortu dute zortzi gaztek. Enpresetara bidaltzen dituzten txostenek bi atal izan ohi dituzte: lan

James Petrasen txosten beldurgarria

JAMES Petras soziologo EEBBarra Espainian egonaldi luzea eginga da PSOeren politika ekonomikoaren ondorioak aztertzen. Beldurtzeko modukoak dira iker-lanean ageri diren hainbat datu, gazteriari dagozkionak batik bat. Petrasek dioskunez, bada Espainiako langilerian belaunaldien arteko haustura sakonik. «*Batzuek lanpostu finkoak dauzkate, dextenteko soldatak eta gain-soldatak jasotzen dituzte. Besteek (geroz eta gehiago) ez dute lanpostu finkorik, gutxieneko soldata jasotzen dute, edo horren azpitik. Enpresariaren aginduetara daude erabat. Banaketa hau be-*

launaldien artekoarekin bat dator.

Frankismoaren azken urteetan lanean hasi zirenek osatzen dute lehenbiziko taldea, lan finkoa eta itxurazko soldata dutenena. Gaur egungo gurasoak dira, dio Petrasek. Horien seme-alabak, 80ko hamkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran lanean hasi zirenak dira bigarrenengo taldea. Lehenbizikoarentzat laneza ez zen arazo larria, soldata eta lan kondizioak hobetzea bai zik. Bigarrenarentzat laneza da buruhauste nagusiena. Kalera noiznahi joateko arriskuak benetako izua eragiten du gazteengan. Segurtasun ezak, soldata eskasak... norbere

buruarekiko estimua gutxitzea ekarri du. Gazteek ez dute beren lanbideei buruz hitzegiten. Lanak ez die inongo bizi-proiekturik ziurtatzen. Garagardo batzuk edateko, diskoak eta arropa erosteko, lagunartean ibiltzeko dute soldata, ez beste ezertarako.

Ez da Espainiakoa soilik gazteriaren pobretzea, dio Petrasek dioenez, ezta langileriarik bakarrik dagozkion gaia ere. EEBBetan eta Europako herri askotan ari da gertatzen antzekorik eta klase ertaina ere ari da pairatzen maldan beherako bidea. Alabaina, Espainia aipatzen du soziologo amerikarrak joera berriaren 'abangoardiako' herrialdeetat.

bila dabilenaren kurrikuluma batetik, Girafen aurkezpena bestetik. Inork lanik aurkituz gero segituan jartzen dute zerrendan ordezkorik. Honetaz informazio gehiagorik nahi izanez gero «Rebondir» aldizkarian, ekaineko zenbakian, aurki dezake irakurleak.

Norberak bere enpresa sortzea da hirugarren gomendioa. Dirua, produktu edo zerbitzu egokiena, inoren babesa... lortzea ez da erraza, baina pazientzia puska batekin gaintzi litezke oztopo horiek. «Herrikoa» Iparralden eta «Elkargi» Hegoalden lagungarri izan litzake enpresaren bat sortzekotan dabilenak. Laugarrena: bide alternatiboak jorratzea. Kazetaritzan aritu nahi zenukeela, adibidez, eta ez dagoela horretarako modurik? Ekin zeharkako


«Dozenaka kurrikulum bidali ditut hara eta hona; emaitza: lan-elkarrizketa bat zortzi hilabetetan, bat bakarra»

bideari. Udal bateko komunikazio arduradun izateak urte gutxiaren buruan eraman zaitzake zeure helmugara, kazetari peto-petoez izatera. Aldiz, biologia ikasi baduzu ez dizu ezer askorik lagunduko musika ekipoak saltzen aritzeak. Askoz bide egokiagoa zenuke laboratorioro batean 'komertzial' lanetan jardutea.

Merkealdiak onartzea da bosgarren gomendioa. Hau da, zure kualifikazio edo ikasketak mailaren azpitik dauden lan eskaintzei muzirik ez egitea. Printzipioz behintzat. Kontuz, ordea! Hiru edo sei hilabeteko lan hitzarmena sinatu eta gero ka-

lean utziko zaituen lanbiderik ez zaizu komeni. Aldiz, zabaltze bidean dagoen enpresa batek zure kualifikazioari dagokionaren azpitik lanpostu finko samarrak eskaintzen baduzu, dudarik ez egin eta hartu. Aurkituko duzu, beharbada, zure balioa erakusteko modurik.

Sekulako pagotxa bailitzan aurkeztea zeure burua, horixe da seigarren kontseilua. Kontratatu zaituenak berehala sumatu behar ditu zu zeu, eta ez beste inor, hartzearen abantailak. Gazteak enplegatze sistemak guztiz konplexuak eta aldatuak direnez, enpresari askok errezeloz begiratzen



Hego Euskal Herriak sekula izan duen belaunaldirik prestatuena du orain 25 urte azpitik dagoena

dituzte kontratu mota horiek. Hartu zeuk aurea! Garbiro azaldu halako lanpostutarako zeu zarela egokiena eta froga egitearekin ez duela zer galdurik.

‘Elur pilota’ren trikimailua da zerrenda honetako zazpigarren gomendioa. Hona hemen ideiarene mamia: norbaitengana zuzenean lan bila joz gero, ezezkoa izan ohi da erantzuna hamarretik bederatzitan. Hauxe da horri aurre egiteko modua: aholku eske joan zarela esan. Eta beste hiru enpresariaren izenak ematea ere eskertuko zenukeela. Giroa aproposa dela irudituz gero, zeure kurrikuluma eman zeniezaiok enpresariari. Bakar-ka aritzea da zortzigarren aholkua. Komunikabidee-

tan, adibidez, geroz eta hedatuagoa da sistema: argazkiak halakori saldu, erreportaia beste hari... Merkataria, artisaia, agente komertziala eta beste zenbait lanbidetan ere erabili ohi da.

Azkenik, beste bi gomendio. Bata, *interim* edo bi lanaldiren tartea aprobetxatzen jakitea. Beti izaten da zer ikasirik. Bestea, kurrikuluma egokitzea. Alor pribatua doktoretza eta tankera horretako tituluek izutu egiten dituzte enpresariak eta batzuetan komeni ohi da gehiegi ez azpimarratzea. Aitzitik, sekula egin behar ez dena alderantzizkoa da: ez daukazun titulurik aipatzea kurrikulumean.

XABIER ARANBURU


DIRUAREN HOTSA

Indizeak ez, konfiantza nahi du jendeak

LEHENAGOTIK ere mintzatuak gara orrialdeotan Maastrichteko Hitzarmenaren inguruan, eta, zehazkiago esanda, Konbergentzia Europarrak agintzen dituen arauen inguruan. Ez direla betetzen esateko, gehienetan. Esaterak dioen legez, *«askoren gaitza, epidemia»*. Konbergentziaren arauak eta irizpideak are zehazkiago mugatzeko garaia heldua denean, Moneta Batasunaren lehenbiziko fasean ibili nahi dutenei behintzat, erraz asmatu liteke zein alorretan izango den malgutasunik eta zein alorretan izango den zorrotza Maastrichteko Ituna.

AURREAN edo buruan dabilzan lurraldeetako gobernuak


amore emango dute zor eta defizit publikoari dagokienez: aitzitik, epeak betearazi egingo dituzte korritu edo interes tipoen kontuan. Baina benetako zorrotzatsuna inflazioaren alorrean nabaritu da. Eta horixe da hain justu gure ekonomia-aren alderik hauskorrena eta ahulena, inflazioarena alegia. Nahiz eta azkeneko datuak txarrak ez diren, diferentziala % 1,3an dago oraindik. Eta inflazioak % 3tik behera egin behar du, derrigorrez. 1995eko abendua ezkerotik 2,5 puntu jaitsi dira interes tipo ofizialak Espainian eta are gehiago jaitsi litezke hemendik urte bukaera bitartean (beste puntu erdi bat agian), ez baitirudi Espainiak Bankuak agortua duenik dirua merkatzeko tartea. Batzuetan denbora behar izaten da jaitsiera hori geure etxe eta enpresetan nabaritu arte, baina azkenerako horietan ere sentituko da merkatu egin dela dirua. Jaitsieraren helburuak, berriz, eta interes tipoak % 6,75ean ditugun honetan, argiak dira: kontsumoa eta inbertsioa zuzpertztea.



XABIER ZABALET
Ekonomilaria

GAKOA beste honetan dago orain: inflazioaren kontrola eta hazkunde ekonomikoa elkarrekin adiskidetzean. Itxuraz bederen, bikaina da operazioa: mailegu hipotekarioak eta kontsumorakoak jaitsiz kontsumoaren gehitzea bere kasa letorke. Baina bada hor nonbait akatsen bat, zeren eta gehitzen den bakarra aurreztutako diru kopurua baita. Gora egin du aurrezki kopuruak aurren, baita abuztuan ere. Izan ere, indizeak eta gainerakoak alde batera utzita, jendeak beste zera bat nahi du: konfiantza.

ITXURA BAINO GEHIAGO..



ANTZA

Maisuen Eskutik

soluzio grafikoak

Irisarrin egingo ditu Ondarearen Egunak aurten EKEk, gai nagusizat hizkuntza hartuta

ONDAREA DINAMIKOA BAITA

Ondarearen Egunak izango dira asteburu honetan Irisarrin, Nafarroa Beherean. Euskara da aurten protagonista, baina 1992an lehena egin zenetik bilakaera izan dute, ondarea kontzeptu dinamikotzat baitu EKEk.

NAFARROA Behereko Irisarri herria Iparraldeko herritar eta hautetsien bilgune bihurtu da azken urteotan. Euskal Departamenduari buruzko eztabaida pil-pilean dagoen garaian, Ondarearen Egunak heldu dira berriz ere EKEren eskutik. Eta euskara da, hain zuzen ere, topaketa egun hauek dakarten ondare eta gai nagusia. Ondarearen Egunen



Teresa Lekunberri egin digu Ondarearen Egunen historia laburra, 1992an hasi zirenetik hona. (Arg.: G. Garaialde).

bilakaera aztertu dugu, baina, Teresa Lekunberri kudeatzailearekin.

Euskal Kultur Erakundearen sorrera urtera jo dugu, 1991n jaio baitzen elkar-

tea. Urtebete beranduago, kultura arloko jendeak eta irakasleek hala eskaturik, erakunde honek Ondarearen Gida-liburua osatu eta argitaratu zuen. Bertan kul-

tur ondarearen sail ezberdinak lantzen dituzten pertsonen datuak eta gaitasunak azaltzen dira; baita hainbat erakunde eta elkar-terenak ere, hala nola, liburutegi, artxibategi eta museoena.

«Gida-liburu hau lantresna biburtu zen. Eskoletan, Herriko Etxetan, eta elkarte ugartan gaitzeko arrakasta izan zuen, eta badu. Hartatik landa, hainbat ondareari loturiko gaien berri emateko elkarte ezberdinetako kideen deialtzen hasi ginen gure egoitzan», honela laburbildu digu Teresak Lekunberri asteburuko topaketa hauen abiapuntua.

Gida-liburuak akuilaturik, bi ideia bururatu zitzaizkien EKEko kideei: elkarte ezberdinen arteko harremanak sustatzea eta, denbora berean, elkarte guzti hauen lana publikoki ezagutaraztea. Artean, ondarearen gainean jende franko ari da lanean asteburuetan; bere lanetik at, zaletasunez eta plazerrez: historialariak, etnografoak eta espeologoak, besteak beste. Horrela definitu ditu Lekunberri: «Ondareaz ari garelarik, ez

gara arkitektura edo etxegintzaz bakarrik ari, izan ere, ondare kontzeptuak erranabi dinamiko bat du. Kultur eta natur kontzeptuak batera doaz, eta haien barruan euskara dago.

Irisarrin, barnealdera begira

EUSKAL Kultur Erakundearen lehen helburua euskal kultura sustatzea izaki, Iparraldeko barnealdeari begira lan egiten dute bereziki kideek: «Irisarrin burutzen dugu kultur azoka eta biltzar publiko hau, Euskal Herriko barnealdea baita. Barnealdea ez da itsasertze-koa bezain lagundua». Bestalde, Irisarrin Ospitalea izeneko etxe historiko bat hatzeman dute, XI. eta XII. mendeetan zaldunen jabego izana: «Jauregia biziki ederra da, eta herri erdian kokatua. Etxe hau Departamenduko Kontseilu Orokorrek erosi zuen duela hamabost urte. Kanpokoa konpondu dio, barnea oraindik ez, ordea».

Orain arte administrazioak ez du inolako proiekturik egin etxe horren inguruan. Hartara, Ondarearen Egunak burutzeaz bestera, EKEk udan erakusketak prestatzen ditu bertan. Iaz margo lanak erakutsi ziren, eta aurten, Christiane Girauden eskultur lanak daude ikusgai. Bestalde, hainbat bilkura izan dira aurten etxe horretan: bate-tik, Departamenduaren garapenari buruz, Departamenduko Kontseilu Orokorrek egina; bestetik, Akita-



■ Ondarearen Egunak Irisarriko Ospitalea jauregian burutuko dira.

niako Kultur Zuzendaritzarekin bilkurak egin izan dira Ospitale etxeari buruz, Ondare Hezkuntza Zerbitzu Iraunkorra proiektua gauzatzeko asmoz, hain zuzen ere. Zentroa ikasleei bereziki eta, oro har, herritarrei irekia izanen da.

Euskara topaketen gai nagusi

1992AN burututako lehen Ondarearen Egunak egun bakarrean burutu ziren. Ondare gaiak nahas-mahasean ezagutaraziak, entsegu egun bat modura oroitzen ditu Teresa Lekumberrik: «Lehen urteko biltzarra, ondare guztiak hartuta, gai berezirik gabe burutu zen. Bigarren edizioan, aldiz, bi egunetara luzatu genituen jardunaldiak eta arkitektura izan zen gai nagusia. Asteburu bartako larunba-

tean, gai horri buruzko mintzaldiak eta eztabaidak izan ziren».

Aurtengo gai nagusia euskara da eta horixe jorratuko dute larunbat honetan, Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoren emaitzak ezagutaraziz. Inkesta hori egiteko, Akitaniako INSEE (Estatistika eta Ekonomi Azterketarako Institutu Nazionala), Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako sailen laguntza izantu du EKEk. Iparraldeko emaitzak agiri ttipi baten bitartez ezagutaraziko dira, baita Euskal Herri osoari buruzko datu orokorrak ezagutzera emanen ere.

Erakusketak bi egunetzabalduek izanen dira, lau gunetan banatuta. Ostipalean Uhairza eta Uztaro elkarteek Battite Urrutiren omenez, «Pastoralaren errentaren lanaren bitartez ikusia» izenekoak; Kalostrapean «Xiberoko harriak», Ikertzaleak Erakundeak egina; Polikiroldegian «Onda-

rea Argazkitan» eta Denen Etxean, berriz, «Euskararen hatsa».

Bestalde, bildu ohi diren 65 Erakundeak, igandez baino ez dira egonen beren stand edo salmahaien inguruan. Izan ere, elkarte kide guztiak euskarari buruzko eztabaidetan parte har dezaten nahi dute antolatzaileek. Euskararen alorrean ari diren Hegoaldeko elkarte askoren parte hartzea espero dute, horretarako. «Euskara gai nagusitzat hartzeak ondare guztien oinarria euskara dela erran nahi du guretzat. Eta hemen, Ipar Euskal Herrian, ideia hori guztien gogoeta izan dadila, hori azpimarratu nahi dugu. Gai bat hautatzen dugularik, garaian garaiko herriaren behar eta nabiak kontuan hartzen ditugu. Gure ekintzetan zehaztapena eta hobekuntza lortu nahi dugu, eta xede horrekin ari gara», nabarmendu du Teresak.

«Bigarren edizioan luzatu genituen bi egunetara jardunaldiak»


TERESA LEKUNBERRI

MIKEL ASURMENDI

LIEBEk itsuentzako euskarazko liburuen plangintza bat eskatu dio Eusko Jaularitzari

ESKUEKIN IRAKURRI NAHI

Oso eskaintza urria dute itsuek euskaraz irakurtzeko. Hori dela eta, LIEBE elkarte (Lan Integratua Errebindikatzeke Bizkaiko Elkarte) egoera hau salatzeko kanpaina aurrera



Merche Sanchez LIEBEko kidea da. (Argazkia: Itziar Diaz de Durana).

EUSKARAZ bizitzea zaila goa gertatzen da kasu batzuetan. LIEBEko kide den Mertxe Sanchezen esanetan, «euskaldun orok zailtasun ugari gainditu behar izaten du euskara ikasi eta normalki erabili abal izateko. Itsuontzat ordea, oztopo horiek ia gaindiezinak bihurtzeraino areagotzen dira».

Jakina da itsuek braille sistema erabiltzen dutela irakurtzeko, baina euskaraz apenas dago ezer idatzirik era honetan: «euskaraz sistema honetan idatzita dauden liburu kopurua dozena ingurukoa da, eta

guztiak elaberriak. Atxagaren 'Zeru Horiek', 'Gizona bere bakardadean' eta Andu Lertxundiren 'Otto Pette', horien artean. Beste batzuk grabatuta daude, baina gutxi. Ondorioz, berri honetako hizkuntza

ikasi edo gozatu nahi duten itsuek ez dute gramatkarik, ez hiztegirik, ez eta beste inolako materialik ere. Ezin dut esan gazteleraz, galizieraz, ingelesez... ere liburu asko dagoenik, baina bai euskaraz baino gehiago.

Hizkuntzaotan behintzat aldizkariak eta hiztegiak badaude».

Honen guztiaren ondorioz, euskaltegira joateko erabakia hartzea oso zaila da itsuentzat, izan ere, ez baitago pertsona hauentzat material egokirik: «guretzat euskaltegira joatea abentura bat da. Irakasleekin aurretik hitz egin behar duzu materiala eskuratzeko eta gainera zuk pasa behar

« Guk itzuli behar ditugu euskarara brailleko liburuak »

MERTXE SANCHEZ

duzu hori brailera. Hala ere, inoiz ez goaz beste ikasleen parean. Denbora eta esfortzu handia eskatzen du, jende asko desanimatu egiten da. Ez dut uste itsu alfabetatu asko egongo denik», dio Sanchezek.

LIEBEko kideak azaltzen duenez, testuak brailera pasatzeko behar den materiala ez da garestia, baina pertsona bakarrarentzat ez da errentagarria gertatzen: «eskamer bat behar da. Bertan testua jarri eta ordenagailuak berak testua brailera moldatzen du. Ondoren inprimagailu berezi baten bidez testua braillean iriteten da. Plangintza batekin hau gutzia ez litzateke batere garestia izango».

Hutsune handia

EUSKAL HERRIAN ez dago inongo argitaletxerik ez elkarerik liburuak braillez euskaraz argitaratzen dituenik. ONCEk ez du euskara atalik, beraz, alde horretatik ezin da espero euskarazko libururik egingo dutenik. «Norbaitek liburu bat irakurri nahi badu, ONCEko langile bati eskatzen diogu grabatu edo brailera pasa dezan. Berez ez da pertsona borren lana, eta gainera denbora asko behar du hori egiteko», azpimarratzen du Sanchez-ek. «Gai honen inguruan ez dago inolako plangintzarik, inor ez da liburu hauek euskaratzeaz arduratzen. Eusko Jaularitzak haurrentzako plangintza bat badu, klaseak jarraitzeko liburuak badi-tuzte, baina helduentzat ez dago ezer. Jaularitzarekin bitz egin dugu, baina eskaera aztertu egin behar dutela esan digute».

IDOIA TORREGARAI



MAITE ARREGI

Billabonako euskara dinamizatzailea

Zein dira egitasmo honen bidez lortu nahi diren helburuak eta hauek lortzeko metodologia? Urtez-urteko jarraipenak zenbaterainoko garrantzia duela iruditzen zaizu? Egitasmoaren barruan Udalek merkatariei luzatutako eskaintza beharrezkoa iruditzen al zaizu?

ANTXONI ETXEBERRIA

Euskara merkataritzara egitasmoaren koordinatzailea

Egitasmoaren helbururik garrantzitsuenak enplegatuen euskara maila hobetu eta establezimendu komertzialetan euskararen presentzia handitzea dira, ahoz nahiz idatziz. Lantzen dugun metodologiak 3 kontzeptu ditu: autoimplikazioa, denda bakoitza hizkuntz-normalizazio prozesuan borondatez eta komentzimenduz sartzen da; mailaketa, dendariak, bere egoera soziolingustikoaren arabera konpromezu mailakatuak onartzen dituelako, ahal duena egitea eskatzen zaio eta segimena, urtero jarraipena behar duen egitasmoa delako.

Kontzeptuok hitzarmen batean gauzatzen dira eta honen truke Udalak eskaintza batzuk luzatzen dizkio dendariari. Honen bitartez hartutako konpromezuak betetzea eta berriak hartzeko aukera dagoen kasutan onartzea lortu eta, bide batez, hizkuntz normalizazioaren

inguruko behar-
rrak eta auke-
rak identifikatu
nahi dira. Hit-
zarmena sinatu
ez duten ka-
suetan, egitasmoan sar daitezen motibatzea.

«Euskara merkataritzara» leloa erreala izateko ezinbestekoak dira Udalek luzatutako eskaintzak. Esate baterako, euskararen ezagupe-na betetzeko merkatariei zuzenduriko ikastaro bereziak antolatzen dira; bereziak trinkotasun, ordutegi eta edukiei dagokienez. Gainera euskararen presentzia handitzeko establezimendu komertzialetan hizkuntza aholkularitza eta itzulpen zerbitzuak eskaintzen dira, erdararen aldeko inertiak gainditzeko eta euskararen erabilpena areagotzeko.




U R R E A



● Euskararen erabilera eta normalkuntzak aurrerapauso gutxi eman dituela eta AEDren (Arratsate Euskaldundu Dezagun) inguruko Deba Garaiko langile talde batek Euskalan jada martxan jarri du.

G O R O T Z A



● Lekeitioko Euskararen Ordenantzatan Udalak agiriak euskara hutsean egin behar dituela ezarrita badago ere, gaztelera eta euskaraz egiten direla salatu du Lekeitioko EHEK.

Maurice Haulon arkitektuak 130 soto erroldatu ditu Lapurdiko hiri nagusian

BAIONA AZPIKO HISTORIA

Maurice Haulonek 130 soto aurkitu ditu Baionan. Hauetarik 117 Baiona Handian. Gotiko estiloko soto gehienak XIV. gizaldian eraiki ziren, Lapurdiko hiriburuan usu izaten ziren suteei aitzigiteko xedez eraiki ere. Soto hauek, erabilera ezberdinak ezagutu dituzte gizalditik gizaldira.


SALIE karrika, Orde karrika, Gaztelu Zaharra, Agustin-darren karrika eta Saulteko Dorre artean kokatzen da Baiona Handia. XIII. menderate nagusiki egurrezko eraikinak zeuden Baiona hiriko alderdi gorenean. Suteak aise piztu eta usu barreiatzen ziren hiriko alde zaharrea.

XIV. mendetik aitzina, harria lantzen hasi zen etxe eraikuntzan. Baionako Katedrala eraikitzearekin batera egin ziren harrizko lehen eraikinak. Eskuarki, soto deritzatenen gainean eraiki ohi ziren. Maurice Haulonek honela azaldu du: «Soto hauek bananduta eraiki ziren hiriko agintarien ordenuz. Sute ikaragarriek aitzigiteko, eraikin berriak harriz egin behar zirela zioten udal ordenantza berriek.

Bizitoki berriak karriketako solairuan zeuden, bauen azpian, berriz, eraikuntzaren euskarri moduko sotoak eraiki zituzten. Haulonek kontatu digunez, hiri parte honetan, harresiek ingururaturik, hiriko klase ahaltsuak bizi ziren, militarrek eta erlijiosoak.

Argenterie eta Pilori karriken artean aurkitu zuen Mauricek soto multzo handiena. Baiona Handiko beste karriketetan laborariek ekoiztutako produktuak salerosten zituzten merkatari eta dendariak bizi ziren. Berriek eman bide zioten lurrazpiko eraikin haiei lehen erabilera praktikoa. Hortik, soto izena hartu izana.

Lurrazpiko egitura sendo izaki, etxe berrien zimenduak izan ziren soto hauek hastapenean. «Gerora, etxetiarren ogibidearen arabe-




Montaut kaleko soto hauek arku-gurutadura formakoak dira, gotiko estilokoak. Hiri gutxitan aurki daitezke hain ederrak.

ran erabiltzan ziren: upel-tegiak, arandegiak eta olio-biltegiak, besteak beste. Baserri mozkinak hiriburura ekarriak, sotoetan aurkitzen zuten biltegi apro-

posa Haulonen arabera.

Sotoak gotiko estilokoak dira. Hiru eraikin mota ezberdinak aurkitu eta diseinatu ditu Maurice Haulonek: «Sotoak gizalditik gizaldira

BAIONAKO SOTOAK



eraiki eta berrituak izan direla. Hiru multzotan banandu ditut berberak: Arku-zorrotz estilokoak; hauetako batzuk arku-gurutadura forma dute. Kanoi-ganga formadunek habe bat dute euskarri. Palmera formakoek, aldiz, zutabea erdian dute. Bestalde, soto bikiak daude.

Baiona ondoko harrobie-tatik garraiatzen zuten harria, Athurri eta Errobi ibaie-tatik. Kareazko harriarekin eraiki ziren lehen sotoak. Gerora, berriz, hezetasanak jota harria hau desegiten zela ikusirik, hare gogorre-ko harria erabili zen.

Soto hauek ia ez dira bisitatu. Beraietan sartzea ez da erraza inondik ere. Hauetako asko, karrikako solairutik dezente azpira gelditu dira. Mauricek honela diosku: «Soto ugari dira, baina oso gutxi dira funtzio baterako egokituak izan dire-

«Gerora, sotoak etxetiarren ogibidearen arabera erabiltzen ziren» MAURICE HAULON

nak. Hauetako gehienak butsik daude edo biltegi modura erabiltzen dira. Bakar batzuk baino ez dira, denda, bulego, klub edota ostatuko jangela modura erabiliak.

Sotoen jabeak beren gainean bizi diren maizterrak dira. Soto hauek erabilgarriak izateko Udalak eskatzen dituen lege-baldintzak bete beharra dago, eta horrek prezio handia du: «Segurtasun arauak batetik, eta honelako egoitza zaharrek eskatzen dituzten egokitzapenak ez dira gutxi. Garai batean biltegi modura erabiltzeko baldintzak, eta gaur egun publikoari sarrera emango dion edozein lokal publikok di-

tuen betekizunak ez dira parekoak.

Oso hiri gutxitan omen dago -Bordelen, edo Parisko parte batean- Baiona hirien azpian dagoen arkitektura. Baiona hiri berritua eraikitzen hasi zenean, arkitektura hauek jalgia zizuten aurreikuspenak bete ez direla, baieztatu digu Maurice Haulonek. Maurice hirien historia zale gartsua da, aldi berean.

Bere hitzetan erranik, hiriko bizimoduak sotoen bilakaera eta egoera baldintzatu ditu. Arrazoizkoa da pentsatzea balore arkitektoniko handia duten soto hauek, behin beren kokapena eta ezaugarriak eza-gutu ondotik, jaramon ge-

hiago beharko luketeela.

Antza denez, bakar batzuk baino ez diote aitortu balio hau sotoei. Inondik ere, oraingo agintariak arduratuago bide daude, industrialdeak eta hiriaren beraren zabalkuntzaz. Soto hauek geure historiaren erakusle, monumentu eta ondare dira. Gerta liteke, ordea, aintzinantzean hiriak garatu ahala, beren mugetan barna zedarrituak geratzea, eta soto hauek funtzio berritarako erabili behar izatea; gerta liteke era berean gizaldiz gizaldi lurrazpian ahaztuta egon diren toki hauek haintzat hartu eta erabili behar izatea, heldu den mendetik aurrera.

Naski, historian gerta ohi denez, Maurice Haulonek sotoen gainean eginiko lana orduan izanen da biziki eza-gutua.

MIKEL ASURMENDI

60. artikuluko baldintzapeko askatasunaren zain dira hiru euskal preso eri

ERITASUNAREN ITZALPETIK PRESOEEK EZIN ALDEGIN

Eskizofreniak jota dago Fran Franco; psikosi maniako depresiboaz eri Xabier Alkain, eta Inaxio Mendibururen hezurak mugikortasun gero eta gutxiagoz. Eritasun sendaezinak hiru presoek, baina Espetxe Erregimenerako Legearen 60. artikulua eskaintzen duen baldintzapeko askatasuna ez da iristen. Kartzela eta gaixotasunaren itzalpetik ezin aldegin.


GAIXOTASUN larri eta sendaezinak dituzten presoek baldintzapeko askatasuna eskuratzeko eskubidea dutela zioen aurreko Espainiako Espetxe Erregimenerako Legearen 60. artikulua eta eskubide bera aipatzen du 92. artikuluan Lege berriak ere. Axun Sierra, Jon Iturriaga eta Pili Ferreiro kalean dira denbora luzean beren gaixotasuna dela-eta artikulua hau aplikatzea eskatzen aritu ondoren. Baina oraindik beste hiru euskal preso kartzelan dira eritasun larriek eraginda. 60. artikulua aipatzen zuen eskubidearen eskaera egin zuten; epaileen baiezeko erantzunik, baina, ez dute izan orain arte. Inaxio Mendiburu, Xabier Alkain eta Fran Francoren egoerek okerrera egin dute bitartean.

Inaxio Mendiburu aurrean, Langraitzeko presondegira ekarri dutenetik, Txagorritxuko ospitalera atera zuten eta bertan reumatologoak egindako txostenaren arabera, pairatzen duen *«espondiliti ankilosatzaileak»*




Lorena Kortabarria, Begoña Iñarra, Bixen Martiarena eta Joxe Mari Isasa 60 artikulua aplikatzea eskatzen duten plataformetako kideak dira. (Argazkia: Alberto Elozegi).

Hiru preso eta hiru eritasun, aldarrikapen bakarra



Inaxio Mendiburu oiartzuarra da eta 37 urte ditu. 1984an atxilotu zuten eta orduz geroztik lau espetxetan izan dute preso. Herrera de la Manchako kartzelan sartu zuten lehenengo, bertan diagnostikatu zioten, gainera, «spondiliti ankilosatzailea» deritzon hezurretako gaixotasuna. Ondoren Cartagenara eraman zuten. Valentiako espetxea ezagutu zuen ondoren, eta 1992 eta 93an eskatu zuen bere abokatuak Espetxe Erregimenerako Legearen 60. artikulua aplikazioezaioten. Langraitzen dago egun.



Xabier Alkain donostiarra da eta 41 urte ditu. 1988an sartu zuten kartzelara eta orduz geroztik Carabanchel, Alcala de Henares, Herrera de la Mancha, Teruel eta Almeriako presondegietan egon da, baita Martutenen (Donostia) ere, urtarilaz geroztik bertan baita. Ezarri zioten espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak ditu jada, eta horren ondorioz ere baldintzapeko askatasuna egokitzen zaio. Kanean zela ez zuen eritasun psikologikorik eta 1991an izan zuen psikosiaren lehen agerraldia.




Fran Franco Pasai Donibanekoa da eta 32 urte ditu. Aita izan berri da maiatzean eta Carabanchel, Alcala de Henares, Herrera de la Mancha, Sevilla II, Granada eta Alicanteko ospitaleko kartzeletan izan da espetxeratu 1986an atxilotu zutenetik eta zigorraren hiru laurdenak beteak ditu. 60. artikulua aplikatzeko eskaera Entzutegi Nazionalera bidali du Alicanteko epaileak. Entzutegia, baina, zigorraren suspentsioa tramitatzan ari da, ez eskatutakoa. Valdemorora eraman dute ondorioz.

hezurretan duen eragina dela-eta aldakak oso gaizki ditu. Txosten hori aztertuta, traumatologoarengana jo dute senideek eta protesien beharra azaldu du honek, aldakek femurrarekin bat egingo duten arriskua baitu preso oiartzuarrak. Izan ere, gaixotasuna 1984an diagnostikatu ziotenetik bere hezur eta artikulazioak zurruntzen ari dira, mugitzeko gaitasuna galduz. Bizkarrezurra okertzen, biltzen ari zaio eta jada ezin ditu besoak igo ere egin. Sendabiderik ez du eritasun honek, baina errehabilitazioa behar-beharrezkoa du. Kartzelan, baina, ezin du horrelakorik egin.

Herrera de la Manchako espetxean zegoela adierazi zion Ojanguren sendagile

oiartzuarrak «spondiliti ankilosatzaile» gaitz atzeraezina zuela Mendibururi eta, Cartajenara eraman zutenean, gauza bera baieztatu zuen bertako sendagile ofizialak ere. Justo Aristrain sendagileak 1992 eta 1993an espetxe horretara bisita egin zion eta bi urte horietan baldintzapeko askatasuna eskatu zuen Murtziako epailearen aurrean Karmen Galdeano bere abokatuak. Ezezkoa jaso du biotan. Urtebete beranduago, Valentiako Picassenteko kartzelara eraman zutenean, Aristrain sendagileari oiartzuarra bisitatzeko baimenik ez zioten eman (eta baimenik gabe jarraitzen du). Txagorritxun egin diote azken urteetako sendagile-azterketa bakarra. Bere lagunaren ustez,



Inaxio Mendibururen gaixotasunaren ondorioz bizkarra okertzen ari zaio eta mugikortasuna galdu du.

■ Fran Francok 1993an izan zuen eskizofreniaren lehen agerraldia, jipoitu zuten ondoren bere burua zauritu baitzuen

ez dute etxetik gertuen duen espetxera, Martutenera, ekarri hala eginez gero bere sendagilea egokituko litzaiokeelako.

Maniako eta depresibo

XABIER Alkainen abokatuak duela bost hilabete eskatu zuen 60. artikulua aplikatuz baldintzapeko askatasuna eman ziezaioten. Urtarrilaz geroztik Martutenera espetxean dago euskal preso donostiarra, eta ordudunik bakarrik izan du Krispin Batiz bere psikiatrak bisitatzeko aukera (ez baitzioten onartzen ordurarte). Alkainek psikosi maniako depresiboa du, gaixotasun psikologiko sendaezina. Psikosiak bi alde ditu: agerraldi maniakoak dituen urduritasuna eta agresibitate nagusitzen zaio, bere burua eta ingurukoena arriskuan jarriz. Agerraldi de-

Hiru plataforma kaletik tiraka

Inaxio Mendiburu, Xabier Alkain eta Fran Francok gaixotasun sendaezinak dituztela-eta antzinako Espetxe Erregimenerako Legearen 60. artikulua aplikatzeko eskaerak ez dute baiezkorik jaso orain arte eta hiru euskal preso politikook ez dute baldintzapeko askatasuna eskuratzetik izan. Oiarztzun, Pasai Donibane eta Donostian lagun, senide eta herritar taldeak sortu dira askatasun eskaera hau aldarrikapen dutela.

Oiartzungo Begoña Iñarra eta Bixen Martiarenak Mendiburu kaleratze-

ko sortu duten plataformaren berri eman digute, joan den urteko azaroan abian jarri zuten eta ordureroztik sinadurak biltzen, herriko elkarte eta Udaleko ordezkariekin biltzen ari dira. Udalean aurkeztu zuten mozioa ere onartu zen abenduan, baina hitzetan gelditu dela salatzen dute «*Oro bar, ez dugu sumatzen inork ezer egiten duenik epailea presionatzeko, tramitazioa egin ondoren.*»

Xabier Alkain askatzeko plataforma Donostiako Amara Zaharra eta Añorga auzokoei osatu dute

ekainean (Añorgakoa bazen ere azken urteetan Amaran bizi baitzen Alkain) eta, plataforma aurkezteaz gain, herriko elkarte eta taldeen atxekimenduak biltzen ari dira, Lorena Kortabarriak adierazi digunez.

Lehenago sortu zuten, apirillean, Pasai Donibanen Fran Francoren askatasuna eskatzeko plataforma. Bere lagunek sortua, hauek ere presibideen bila dabilta epaileak 60. artikulua aplikatzea diezaion, Joxe Mari Isasa bertako partaidearen arabera.

presiboetan ere bere buruaz beste egiteko arriskua du azterketa medikoen arabera. Gaixotasunaren lehen agerraldia 1991n izan zuen eta, psikiatraren arabera, eritasuna sendatu ezin bada ere beharrezkoa da gaixoa eratzeko etengabeko kontrola eta psikoterapia izatea, ingurune sozio-afektibo eta emozionalak berebiziko garrantzia izanik. Hau guztia presondegian ezinezkoa izan dela-eta (erizaintzan bakarrik izan dute denbora

askoan) eskatu dute baldintzapeko askatasuna.

Fran Francok ere gaixotasun psikologikoaren ondorioz eskatu zuen ekainean 60. artikulua aplikatzea ziezaioten. 1993an izan zuen eskizofrenia paranoidearen lehen agerraldia, jipoitu zuten ondoren bere burua zauritu baitzuen eskrotoa moztuz. Eskizofreniak eragiten duen desegonkortasun eta arriskuaren kontra (erizaintzan bakarrik eduki dute Fran ere, tratamendu bakar-

tzat medikazioa duela) sendeengandik ahalik eta hurbilen egon behar zuela esan zuen Alicanteko sendagileak (bertan espetxeratua zegoenean). Martutenera ekarri bai, baina Valdemorora eraman zuten berriz ere joan den hilean; paranoia eragiten diote lekualdaketek, eta azken espetxe aldatetaz baiezatu egin du Martutenera ekarri zutenetik azaltzen zuen beldurra.

ARANTXA ERASUN

EGUZKITARAKO
BETAURREKOAK



Betaurreko bakar batzuetan den-dena daukazu. Eguzkitarako diseinurik modernoena eta zure ikusmenak behar duen graduazioa. Eta 9.800 pta.n baino ez, montura barne.

MULTIOPTICASen dena dago zure alde, lehenean asma dezazun. Estatuko Optika Sarrerik handienaren garantia ere bai.

IKUSTEKO
BETAURREKOAK



9.800
PTA. TIK
AURRERA

ZINKUNEGI

MULTIOPTICAS

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Hernani, 4 - DONOSTI

«Maratoilari ona izateko, berekoia izan behar du korrikalariak»

Gasteizen duen kirol dendan arratsaldeko entrenamendura irten aurretik solastu dugu berarekin. Pare bat egunetan utzitako bizarrak ez du utzikeriarik adierazten, indar guztiak korrikarako gorde behar dituela, baizik.



Zenbat kilometro egingo dituzu gaur korrika?

Goizean hamazazpi bat egin ditut eta gaur arratsaldean sailak egitera noa, horrela abiadura puntua lantzeko (mila metroko hamabi sail). Gutxi gora-behera nire eguneroko erritmo normala hogeita hamarretik gora kilometro egitea izaten da (berrehun bat astean) maratoni baten prestaketan nabilenean.

Horrenbeste kilometro eta egunero paraje ber-

«Korrikalari herrikoi asko dago, korrikalari andana ikusten da». (A.: A. Elozegi).

dinak ikusten ez al zara nazkatzen?

Zorionez, alde horretatik gasteiztarrok aukera zabala dugu; Pradoko parkera batzutan, Mendizorrotzara, edo Olaitz mendira, zirkuitu ugari eta ezberdin asko dago hiri ingurunean.

Zerk bultzatu zintuen iraupen luzeko lasterketara?


Eskolan gehiago futbolera-ko joera nuen, baina agian

bakarkako kirolak atseginagoak ditudalako, atletismoan aproba egin eta horrelaxe hasi zen nire bizimodu hau. Bakarkako jardunak ez dizu iruzurrik egiten; izan ere, lortutako garaipenak zeureak bakarrik dira eta, era berean, izaera gogorrekoa izan behar duzu, porrotak ere zuk 'jan' behar izaten dituzu-eta.

Asfalto gaineko korrikalaria izan aurretik kros-

sean eta pistan ibilitakoa zara.

Krossean gehiago. Halabeharrez, Euskal Herrian jaiotakoa izaki, bertan sona handiko handiko probak antolatzen baitira, munduko onenak: Lasarte, Elgoibar, Laudio... Lasterketa hauek oso maitagarriak dira ikuslearen berotasuna gertutik sentitzen duzulako. Hemen krossek eta ziklo-krossek betidanik arrakasta handia



«**Bakarkako jardunak ez dizu iruzurrik egiten; garaipenak zeureak bakarrik dira eta izaera gogorrekoa izan behar duzu»**

ratoi bati segida emateko, hain zuzen ere, duela gutxi jokatu zen munduko maratoni kopa. Hartan Nerurga ingelesak irabazi zuen eta marka ere ez zen txantxetako izan, 2-10-01, alegia. Eliteko atletek ondo asko dakite Donostiako zirkuituaren ibilbidearen samurtasunaren berri eta marka oso onak egin daitezkeela, baina nire ustetan urte hartakoa edizioak emandako sona ez zuten antolatzaileek erabiltzen jakin eta ondorioz, zoritxarrez, ekonomi kudeaketa oker baten erruz, goi mailako lasterketa bat antolatzeko abagadunek ihes egin dio.

Eta gainontzean maratoinako aparteko zaletasunik sumatzen al duzu?

Bistan dago. Korrikalari herriko asko dago. Bai hemen Mendizorroztan edota Anoetan entrenatzen izan naizenean korrikalari andana bat ikusten da, egunero kilometroak irensten dabilena. Apalanta, Asier Zarra... presarik gabe, baina badatoz. Geure tiraldiari begira, Euskal Herrian luza gabe maratouilari berriak sortuko dira.

Hogeita hamar urte zenuela maratouira pasa zinen. Nolatan?

Erabaki horretan Sabino Padilla nire mediku eta aholkulariak zer esan handia izan zuen. Aspalditxo

«Euskal Herriko kross lasterketak maitagarriak dira, ikuslearen berotasuna sentitzen da. Hemen kross eta ziklo-krossek beti izan dute arrakasta handia, hemen kirola beste era batetan jarraitzen delako».
(Argazkia: Alberto Elozegi).

izan dute, hain zuzen ere, hemen kirola beste era batetan jarraitzen delako.

Pistan aldiz, bakarrik zaude, zu zeu eta lekuko eta epailetzat, kronoa. Horrez gain, pista etengabeko erritmo altua mantentzen duen atletarentzat den bitartean, krossa nire ezaugarrietarako askoz egokiagoa zen; guk esan ohi dugunez, diesel motorea dugunontzat eginak daude.

Krossak betidanik tradi-

zioa izan dute Euskal Herrian; maratoiak, aitzitik, nekez antolatzen dira, zergatik?

Donostiako maratoiarekin adibide esanguratsua daukagu. Edozein kirol ekitaldi antolatzeko aparteko ahalmena eta seriotasuna frogatua du: hor dago Tourra, datorren urtean munduko txirindularitza txapelketa eta abar. Atletismoaren munduak aukera paregabea galdu zuen maila handiko ma-


zerabilkien maratoilari ona beharko nukeen ustea eta, hala, Bartzelonako Olinpiadetan 5.000 metrotan finalen ez sartzeak eragin zidan sumindura tarteko, azterketa fisiologiko batzuk egin zizkidan eta, itxura denez, maratoilari baten bete-beteko emaitzak eman omen nituen. Erronka gogorrari tankerako neurgailua zego-kion eta aurretik erreferentziarik izan gabe Helsinkiko maratoian parte hartu nuen eta hiru minutuko alde atera nion bigarrenari.

Kilometraian jauzi handia izan arren, berehala egokitu zinen distantzia berrira.

Ez pentsa; dena aldatu beharra zegoen. Korritzeko era hasteko, zangoak zoluaren arrastotik gertu behar dute pausoa azken metrotara indarrez ailegatzeko; lehia ere guztiz ezberdina da estrategiak garrantzia handia duelako eta, jakina, entrenamenduetan ere kilometro kopurua handiagoa da, errekupeartzeko kasik gelditu gabe.

Makina bat aldiz entzuna izango duzu, iraupen luze-ko korrikalariaren bakardadea. Zer da hori?

Egia esango badizut, nire zainetan sentitu dut Atlantako Jokoak prestatzen hasi nintzenetik. Entrenatzen ari zarela urrezko dominarekin amesten duzu, ilusioz gainezka, zangoak inoiz baino arinago dauzkazu. Atlantatik bueltan, galdutakoa ahazten saiatzeko zara eta ezina nagusitzen da burmuinetan, abuztuaren hiru hura kirol bizitzaren egun seinatu eta markatu bat delako; irabazteko hautagaitzaren zorrak jan zaituela konturatzen zara eta hala ere biharamunean beste hogeita



hamabost kilometro egin beharra gogorra da oso. Baina maratoilari ona izateko berekoia izan behar da. **Atlantako maratoiaren bezperan behin eta berri-zeure zangoak urrea balio zutela esaten entzun genizun. Atribentzia, harrokeria, handi-**

nabia... zer zen bura?

Harroputzaren planta eman beharra zegoen. Kontuan har ezazu ordurako Europa eta Munduko txapelketak irabazita neuzkala eta urteko markarik onena ere nik lortutakoa zela. Alde batetik, neronek irabazteko gauza nintzela sinetsi nahi nuen

«Maratoien lehia guztiz ezberdina da, estrategiak garrantzia handia duelako». (Argazkia: Alberto Elozegi).

NORTASUN AGIRIA

1963ko martxoaren 3an jaio zen Gasteizen

● Ezkonduta dago eta seme bakarra du ●

Bere bizimodu ibiltariak etxetik kanpo ia urte

osoa ematera derrigortzen du, horregatik

etxezalea da eta bere senideekin eta

lagunekin egotea du denbora pasatzeko

gustukoen ● Gasteizen egon dagoenean, beste kirol batzutan


aritzea atsegin du, areto-futbola, tenisa eta abar ● Hogeita hamar


urte izanik krossa utzi eta Sabino Padillaren gomendioari jarraiki

maratoira pasatzea bere bizitzako erabakirik garrantzitsuena izan

dela uste du ● Europa eta Munduko Txapelketak irabazi ditu eta

Atlantako Jokoak amesgaizto baten pareko dira berarentzat





«Oraindik bi urte on gelditzen zaizkit, gorantz egiteko erakoak eta ahalik eta ondoen aprobetxatuko ditut». (A.: A. E.).

eta bestalde, psikologikoki arerioei urduri jartzeko intentzioz esan nituen esandakoak. Baina, nonbait, Hego Afrikan kirol aldizkariak ez zuten irakurri.

Beraz, Atlantako maratoia kenduezinako arantzza duzu.

Dena oker atera zitzaigun. Hasi orduko Diego Garcia, bareak jota atzean geratu zen. Arazo fisiko batzuek bestean adinako prestaketa egitea galerazi zioten eta nire ustez egun horretan zer moduzko gorputzaldia izango zuen ez jakiteak urduri jarri eta trabatu egin zuen. Hango giro bero eta hezeak ez zigun mesederik egiten eta irakurketa asko egin ostean, korearrari ez segitzen huts egin nuela iruditzen zait. Podiuma hain gertu ikusi eta laugarren

postuan iristea kolpe latza izan zen. Jokoen historian postu horrek azkenaren balio berbera izango du, zoritxarrez.

Sidneyn lau urte barru izango dira buruen Jokoak. Izango al du Martin Fizek beste aukera bat?

Ez da erraza galdera horri erantzutea. Sabino Padilla eta biok, hara begira planifikatu ditugu gure entrenamenduak baina lesioak direla, adina ere bai... batek daki zertarako gauza izango naizen! Hala ere, Carlos Lopes txapeldun handiak hogeita hamazazpi urte zituela

irabazi zuen Olinpiadetan eta hurrengo urtean munduko marka hautsi zuen. Orain bezala entrenatzeko gogoek dirauten bitartean...

Helsinki, Korea, Rotterdam, Goteborg...eta orain azaroaren 3an New Yorkera. Irabaztera?

Ez da samurra izango. Atlantatik hiru hilabete pasa dira eta oraindik hartako esfortzuen aztarnak gaintu ezinik nabil. Entrenamendu gogorrak ez ditut behar bezala errekupezen eta sarritan nekearen eraginak zalantzak sortzen dizkit. Azken bolada honetan maratoi erditan bikain ibili naiz, Lu-

xenburgon, esate baterako, duela pare bat aste Espainiako Estatuko marka berria ezarri nuen. Hasierako indarrean ondo nabil, baina hogeita hamabosgarren kilometrotik aurrera nire gorputzaren erantzunaz kezkatuta nago.

Aipatu duzunagatik, ez al litzateke hobe buruen go baterako uztea?

Beranduegi. Konpromisuak betetzeko sinatzen dira eta geure karrera hain da laburra, ezin dugula agindutakoan huts egin. Gainera, maratoilari batentzat, Munduko Txapelketa eta Olinpiada kenduz gero, lasterketa garrantzizkoena da New Yorkekoa. Saritan ez du parekorik. Zifra asko entzun ditut baina, nik dakidanez, managerrak esanda, New Yorken marka on

«Presarik gabe, baina badatoz, Euskal Herrian luza gabe maratoilari berriak sortuko dira»

«Podiuma hain gertu ikusi eta laugarren postuan iristea kolpe latza izan zen, Jokoen historian postu horrek azkenaren balio bera du»

bat eginez irabazten duenak berrehun mila dolar esku-ratuko lituzke.

Aberasteko moduan, beraz.

Teoria hutsa. Nire egoera fisikoaz arduratuta nabilela eta ibilbidea ez da marka on bat egiteko aproposena. Azken zazpi kilometroak al-dapan gora, hain justu, Central Park famatu horretan sartzen zareneko puska hori itolarrian suertatzen omen da. Nik 2-08-25 dut eta New Yorkekoa, duela zazpi urte Juma Ikangaa tanzaniarrak jarri zuen 2-08-01. Munduko errekorra, aldiz, niretzat garestiegia da; 1988.ean Belayneh Dinsamo etiopiarren markak (2-06-50) luze iraungo du. Nagoenean egonda, New Yorkeko maratonia irabazteak asebeteko ninduke.

Bertan izango dituzun arerioen berri ba al duzu?

Onentsuenak izango direla seguru. Oraindik mexikoarren partaidetza zehaztu gabe dago, baina afrikarrak badakit ordezkaritza oparoa dakartela eta hauekin eza-guna izan ala ez ez dago fidatzerik; egun ona izanez gero, edonork egurra eman diezazuke. Garbi dago gutxienez hogeita hamabosgarren kilometrorarte ez zaidala beltz lagun koadri-larik aldamenean faltako.

Urrutirago begira, zein-



«Maratoilari ona izateko berekoa izan behar du korrikalariak». (A.: A. Elozegi).

tzu dira datozen urteetarako egitasmo nagusienak?

Geure karrera nahi baino azkarrago amaitzen da eta, jakina, etekina atera behar ko zaio. Nire ustez oraindik bi urte on gelditzen zaizkit, gorantza egiteko modukoak eta ahalik eta ondoen aprobetxatu nahi ditut. Helburuak pilotzen zaizkit eta irtenbideak ematen hasi beharra dago. Nolanahi ere, aurtun gorputza gehiegi zi-

gortu dut. Seul, Atlanta eta orain New Yorkekoa urte berean gehiegixko dela deritzot eta horregatik maratoinen hautaketan zuhur ibili behar dut. Izan ere, datorren urtean bi maratoni baino ez ditut korrituko, hirugarren bat kaltetarako litzatekeela konturatu naiz eta.

Alde batetik, diru arloari begiratzea ezinbestekoa da, baina, bestetik, nire ametsa, bi ordu eta zortzi minututik jaitea da. Datorren urteko

martxoan Tokioko maratonia parte hartzea aginduta daukat, baina bestea Berlinen egitea gustatuko litzaidake. Antonio Serrano eta Abel Antonek orain dela hilabete eskas marka bikainak lortu dituzte han, eta Diego berak ere hara joateko gomendatu dit. Egundua izanez gero, 2-07-45era inguratzeko gauza naizela uste dut.

MARTIN AGIRRE

Bidaia herratua

KAZETARITZAREN inguruan go-etan dihardu Umberto Eco azken aldian. «L'Espresso»-n idatzitako artikulu batean gaurkotasunik ez duena baleuka bezala janzteko modu desberdinez aritu da. Erraza omen da, esaterako, Descartesi buruz jardutea haren jaiotzaren mendeurrena denean. Baina, hala ez delarik? Ez du arazorik ikusten Eco, eta dio Napoleonez erraz hitz egin daitekeela berari buruz biografiaren bat idatzi duen norbait aprobetxatuz edo, besterik gabe, lapitza hartu eta kalkuluak eginez hura hil zela 175 urte pasatu direla konturatu. Izan ere, nork agindu du mendeurrenak baino ez direla gomutatze-koak?

Aitzolez mintzatzeko tenorean nintzen aste honetan: bere jaiotzaren mendeurrena izateaz gain, hilaren 17an Hernanin fusilatu zutela 60 urte bete dira. Erreportaia, artikulu eta ekitaldiak egiteko ezin aukerakoagoa. Italiako 'Sa-

bio'arenak irakurri eta gero, oster, fabore eskasa egingen nioke nire ego-ari. Sortzera jarri beharrean, ordea, Ecoen salaketan sakondu eta neure buruari, eta batez ere zuenari, erakutsi nahi izan diot albistea sortzeko edozein hari mutur soltetik asma litekeela mataza. Eta halakoxea dela emaitza. Hernani hartu dut hizpide.

KALAPITA dakar, berehala, izen horren memoria hurbilak. Azken aldian publikoa baita ez dela sagardoa herri gipuzkoarrean hausten den gauza bakarra. Baina istilu-iturri aspaldidanik izan da. Duela mende terdi iskanbila latza sortu zuen, orduan ere kalean liskarrak sortzeraino, Victor Hugo idazle handiaren «Hernani» antzezlanak. Eta istiluak ez sortuagatik konplexutasunik ez zuen galdu antzezlanean oinarrituta Verdik egindako «Ermani» operak, hain zuzen aste honetan Bilbon OLBERen eskutik

gozatu ahal izan dena. Eszenaratzen eta kantatzen herria bera bezala, zaila, OLBERen apustua meritu handikoa da, eta oso kantari onak ekartzea erdietsi du gainera. Lan eskerga egiten du Bilboko operazaleen elkarteak, baina ihes egiten digula iruditzen zait. Kulparik izango du horretan agian, eliteko kontua izatearen planteamenduak. Operak luxuzko etiketa darama eta herri xehea prêt-a-porter

Internet dugu azken itsasoa, nabigatze hutsa funts duen itsasoa. Oroit Coleridge: «Ura, dena ura inguruan/ Eta tanta bat ere ez edateko»

«Bihur dezagun euskara mendeetan barrena izan zena, Euskal Herriaren ezinbesteko osagaia, Euskal Herriaren arnasa bera», aldarrikatu zuen Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegik» joan den larunbatean Euskal Herrian Euskaraz erakundeak deituriko manifestazioaren amaieran.

Milaka pertsonak «Euskal Herriak euskalduna eta librea» izan behar duela adierazi zuten Donostiako kaleetan barrena. (Argazkia: Jagoba Manterola).



estandarren eremuan mugitzen da.

Baina ez da atzerritarrak kantuan entzuteko abagune bakarra. Udazkenean Folk ere gainean dugu, eta aurten Mazedonia, Maroko eta Hungariako kantarien lana estimatzeko aukera izanen da Donostian.

Gure hari-mutur bidezko trabesian gaurko azken kaira garamatza folk erakustaldiak. Donostian lau egunez folk kantua izango ditugu, hots, herrien gorputzari darizkion fruituak. Izaite bat bereixten ez gara hasiko, baina, eta herrien odolaren fruitua ere segidan izango dugu: hizkuntza. Arakatzeko lan handia eginez, Eremuak '96ko antolatzeileek aurten ere bildu dituzte hainbat produktio 'urri'. Ez kalitatez, jakina, hizkuntza eremuak baizik (hori mintzagai hartu eta gure zinemaldi propiotzat aldarrikatuz ea nork jaurtikitzen duen lehen gezia).

GURE erreflesioen iturri izan zitezkeen albistetik albistera bidaiatu gara, denak ere aipatu baina bakarra sakondu barik. Gure ontzitik ikustatutako portuak besterik ez dira izan. Sarrionandiaren marinelen antzo ibili baikara, portua ezin ukiturik, bidaiari, nabigatzen. Horretara baitoa, haizea alde, kultura izenez eza gutzen duguna, eta kazetaritza horren ispilu da. Ez da porturik ukitzen, ez da itsasoa bera 'jorratu' nahian bidaiarik egiten ez da lehorrean deskantsurik hartzen. Ibilian, hainbat paisaje ikusten dira, eta ustez denetarik edaten. Asko ezagutu, eta informazioa metatzen da. Baina azkenean informazioz gainezka egiten du ontziak, ibili etengabeak marinelak mareatu egiten ditu eta lemazainik gabe olatuen nahierara mugitzen da ontzia. Kaiak ez dira jotzen: argazkiak egiten zaizkie gero kopiak banatzeko. Eta argazkiak, areago kopiak, errealitateari ebatsitako irudi mortuak baino ez dira.

Bizi garen fotokopien zibilizazioan Internet dugu deskubritutako azken itsasoa. Lurralderik gabeko ontzi herratuen eredurik garbiena. Nabigatze hutsa funts duen itsasoa, sekula ukitzen ez diren portuz betea. Oroit Coleridge. «Ura, dena ura inguruan /Eta tanta bat ere ez edateko».

MIKEL ELORZA



MAIZPIDE
euskaltegia
LAZKAO

**Urte osoan, EUSKARA IKASIZ
EUSKARAZ BIZI**

**BARNETEGIAN NAHIZ KANPO - IKASTAROETAN
MAILA GUZTIAK**

ESKATU INFORMAZIO GEHIAGO

HABEren dirulaguntzaz



Tel.: 88 92 31 / 32
Faxa: 88 92 32

20210 LAZKAO
GIPUZKOA

ALSASUA DE MAQUINARIA, S.L.

«ALDEMAQ»

Makineria industria lantegia - Estanpazioa

MAKINERIA BERRIA BERTAKOIA NAHIZ INPORTATUA
MAKINERIA ERABILIA ETA GARANTIAZ BERRERAIKIA
MAKINA ERAMANGARRI, LANABES ETA OSAGARRIAK

NAFARROA OSORA BANATZEN DITUGU:

- Zizailak / Tolestatzeko makinak
- Zentro mekanizatuak / Tornuak
- Prensas eszentrikoak /
- Hidraulikoak
- Prensas elikatzaileak
- Eskorga-jasogailuak
- Tornoak
- Zerrak
- Konpresoreak
- Aire bero sorgailua
- Torneaketa zentruak
- Mandrinatzeko makinak
- Fresatzeko makinak
- Artezteko makina
- Daratuluak

Makina eta osagarritan stock handia
Prensatu berezituak, 20 eta 400 Tona bitarteko puntako markak:
ARISA - AITOR - BLANCH - GOITI - GRIMAR - SPIERTZ - INNOCENTI
besteak beste

Mantenimendu zerbitzu teknikoak
Salneurri eta salmenta baldintza egokiak
Zain gauzkazu - Larunbatetan ere zabalik

Industrialdea, 1-2 • 15 Posta Kutxatila
Tel.: (948) 46 76 07 • Faxa: (948) 46 76 06
31800 ALSASUA (Nafarroa)

TXUTXU - MUTXUKA


JUNES CASENAVEREN PASTORALA FRANTSESEZ

Junes Casenave Haregilek pastoral bat frantsesez idatzi du Biarnon eskaini ahal izateko; Landa herrian izango da emanaldia (Lannes frantsesez). «Juan Martin Pueyredon» du izena pastoralak. Argentinako lehen presidentea izan zen 1812-1819ko tartean. Frantsesez den arren, euskal moldeetan egina dago pastorala.


NOR - NORI - NOR K

**AINHOA GOZATEGI**

Euskal Herriko plazetan panderoa astintzen ibili ondoren, Argentinan da orain bere taldekideekin. Ainhoarekin batera, Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea joango dira itsasoaren bestaldera. Hilaren 16an, asteazkena, Rosario hirian zuzenean aritzekoak ziren. Kontzertua Hego Amerikako hiri horretako Euskal Etxeak antolaturiko Euskal Jaiko ekitaldi nagusia izan da ●

**RUPER ORDORIKARI**

«Ez da posible» lana berrargitaratuko dio DRO diskete madrildarrak. Oñatiarraren ibilbidean lanik arrakastatsuen izan den honek azalean baino ez du edukiko aldaketarik, eta hau txikia izango da. Ordorikaren laugarren diskoa izan zen orain madrildarren eskutik kaleratuko dena eta bertan jasotzen dira «Urtaroa», «Zaldiak negarrez» edo «Ez da posible» bezalako kantuak ●

**FRAN LASUENEK**

bakarkako lehen lana kaleratuko du abenduan egiten den Durangoko Azokan. Duela hiru urte Oskorri utzi zuenetik ezer gutxi jakin dugu musikari honetaz. Zein disketxerekin kaleratuko den inork ez dakien kontua da, eta Lasuen berak sorpresa gisa gorde du. Baliteke zigilu berri batekin merkaturatzea lan berria. Bere arrimoan musikari handiak izan ditu diskoaren grabaketan ●

TEJLAK

■ EUSKO IKASKUNTZAREN ERAKUSKETA

Eusko Ikaskuntzak 75 urte bete dituenaren aitzakiarekin, erakusketa ibiltaria jarri du abian Altsasun. «Eusko Ikaskuntza: iragana, oraina eta geroa» erakusketak abenduaren 20a bitarte Nafarroako hainbat herri zeharkatu ditu.

Altsasun hasi duen ibilbideak Elizondon izango du jarraipena, Zangotzan, Tafallan eta Iruñean jarraitzeko. Neurri handiko panelek, ordenadore interaktiboek eta bideo emanaldiek osatzen dute erakusketa. Orain arte egindako lana biltzen da bertan eta argitaraturiko idazkiak ikusi ahal izango ditu erakusketara hurbiltzen denak.

■ SAN MIGUELEK KONPONTZE PREMIA

Aralarko San Miguel santutegiaren egoera tamalgarriak duen konpontze premia bistaratu du. Itoiginak, oholtza usteldu eta altxatua, gangatik erortzen diren harriak, hezetasuna... Guztiak izan du eragina santutegiaren egoeran. Bertan egin den azken konponketa orain dela 25 urte egin zen eta orduz geroztik ez Nafarroako Gobernuak ez artzapezpikuak ez dute behar bezala mantendu. Nafarroako Gobernua konponketen kargu egitea eskatu dute Artzapezpikutzatik zein azken 51 urteotan San Migueleko apaiza den Inozentzio Aierbek ere. Bisitari ugari jasotzen ditu San Miguelek baina hauengandik jasotzen den dirua ezer gutxi da.

EAIko zenbaitek euskararen alde egindako lan eskerga bildu du Mikel Atxagak liburuan

«EAIko jendearengatik izan ez balitz euskara galdua zen honezkero»

Euskal kultura eta bide batez EAJn izandakoen 50 kideren bibliografiak dira Mikel Atxagaren azken liburuaren euskarriak. Ia oharkabean, euskararen hainbat arlotan lan franko eginiko euskaltzale eta abertzaleak ekarri nahi izan ditu gogora Atxagak. Kulturaren alde eginahalak egiteaz gain, EAJn, politika lanetan, jarduteko lotsarik izan ez zuten gizon-emakumeak

Sabino Aranak hasi, eta besteak beste, Lizarditik barrena, Mitxelena raino, 50 gizon-emakume langileren berri eman duzu.


Hiru horiek, bereziki aipatzen direnak dira. Bidean beste jende asko gelditu da aipamenik ere egin gabe. Jende ospetsua guztia.

Gerra aurreko belaunaldi hori eskerrak luzatu nahi nizkion eta bide batez EAJ-arentzat euskara funtsezkoa dela adierazi nahi nuen. Horretarako, alderdikideak eta alderdiaren baitan karguren bat izan duten pertsonak behar nituen. Edozeinekin ezin nuen erakutsi alderdi bat euskaltzalea zen ala ez.

Liburua, euskara bultzatzen jardun eta ohar-kabean igarotako belaunaldi zigortuari eskaini diozu.

Pertsona horietako asko ez nituen ezagutu, ni jaiotzerako hilak baitziren. Beste batzuk, berriz, ni ezagueran sartzerako, gerra galdu eta erbestean, espetxean... zeuden. Guztietatik oso jende gutxi ezagutu eta gutxiarekin izan izan dut hartuemana (Mitxelena...). Hala ere, jende hark piztu zuen niregan abertzaletasuna.

Belaunaldi hartako irakasle batek, Andoni Basterretxeak, 13-14 urte nituela, euskararen aurka de-



«Euskaltzaleok, alderdi politikoetako etiketaren beldur gara agian», dio Atxagak. (Arg.: Garikoitz Garaialde)

beku gogorra egonik ere, kantatu asko erakustez gain, euskaraz idaztera bultzatu

ninduen. Bide batez, euskarazko gramatika apur bat ere irakatsi zigun, baita ira-

kurtzeko zenbait liburu utzi ere. Horrek guztiak eraginik izan zuen niregan.

Zure euskalzaleatasun eta abertzaletasunean zeresanik izan duen belaunaldia beraz.

Bai horixe. Jende asko eza-guna banuen ere, eta oso gazterik Lizardiren «Bihotz begietan» poesia liburua irakurriagatik ere, orain gutxira arte ez dut jakin zauraztarraren beste dohai batzuen berri. Hau da: politikoa zela eta euskal prentsaren aldeko eginahalak egin zituela.

Joxe Azurmendik, liburuan, «egunotara arte, euskararen alde gebien lan egin dutenak abertzale aranistak izan dira», dio.

Bat nator. Nahiz eta aldeaz aurretik euskalzaleak izan, alderdi bezala, EAJ da lehene-go aldiz euskara bere helburuetan duena. Hau da; aberrigintzan euskara oinarritzat izatea. Alderdi hone-

«Euskara, zenbait mugimenduk, erakundeen aurka ekiteko erabili dute, sistema nola hankaz gora jarriko»

tako jendea izan ez balitz, euskarak jaso dituen erasoak medio, euskara galduta zen jada.

Liburua inor gutxik eza-gutzen dituen gerra aurretik jaiotako euskalzaleez osatua dago

Lan asko egindako jendea dugu. Eusko Irakaskutza, Euskaltzaindia... sortzen eta bultzatzen ibiliak. Antzerki-gintzan jardun zirenak esaterako, bultzada handia eman zioten euskarari. Izan ere, sasoi hartan, egun ez bezelako baliabideak zituzten: ez zegoen ez zinemarik, ez telebistarik ere. Bide batez, beste askok literatura bultzatu zuten, irakaskuntza euskalduntzeari ekinaz... Hitz batean, hamaika izerdi botatako gizon-emakumearen gorabeherak ageri dira.

Hala ere, Eusko Alderdi Jeltzaletik kanpo ere, jardun zen euskalzale-rik: Azkue, Kanpion eta beste bainbat.

Ez ditut sartu baina hauek ere merezi dute tarterik. Aipamenik ezaren zergaitia, alderdia beste luma batzuekin ez jazteagatik izan da: EAJren baitako euskaltzale santutegi bat egin baitut.

Kanpoan jende asko gelditzen dela ikusirik, euren berri emango lukeen beste liburu bat plazaratzeko ideia buruan dabilkit. Orixe, adibidez, liburuan aipatzen ez badut ere, Eusko Alderdi Jeltzalearen inguruan ibili zen («Euzkadin» idazten, mitinak ematen...). Beste hainbeste gertatzen da Kanpionekin.

Urteetan zehar, eliz-gi-

zonak izan dira euskararen euskarri.

Liburuan bat edo beste aipatzen badira ere, jakina da garai hartan ez zitezkeela militante izan. Bide batez, Azkue abertzale izan ez arren, gerra ostean inorekin ibili bazen, EAJkoekin jardun zela uste dut. Zer esanik ez EAJren baitan edo inguruan ibilitako «Aitzol», Santi Onaindia...

Liburuan, euskararen alde itsu-itsuan jardundako pertsonak politikan sartzeko ez zutela inolako lotsarik izan azpimarratu duzu. Egungo «intelektualei» zuzenduriko gezia al da?

Egun, zera nabarmendu ahal da: alde batetik politikoak eta beste alde batetik kulturalgizon eta euskalzaleak gaudela. Garai hartan, aldiz, euskalzaleenak, kargu politikoak hartu zituzten. Lizardi adibidez, Gipuzkoa Buru Batzarrean sartu eta Estatu-toaren alde lan egin zuen. Garai hartako euskalzaleek ez zioten politikari muzin egin, ezta alderdiko politikari ere; buru-belarri aritu ziren.

Egun gauza zikintzat daukagu politika; agian guztia profesionalizatu egin delako. Horretara egon behar duzu aurrera egin nahiez gero.

Profesionalizazioarekin, bakoitzak bere lanarekin galtza bete lan duela pentsatzen da. Bide batez, abertzale ingurua zatituta dagoelako edo zenbait intelektual, irakasle... ikusten ditut PSOEn barnean. Alderdi politikoetako etiketaren beldur gara agian.

Aurreak erakusten du atzeak nola dantzatu dio esaera-zabarrak. Egun, EAJk 50 euskaltzale



Belaunaldi zigortua deritzanak, piztu zuen niregan abertzaletasuna. (Arg.: Garikoitz Garaialde)

Belaunaldi zigortu eta ukatuari ohore

Hamaika artikulua eta liburuaren egilea da Mikel Atxaga urnietarra. Sabino Arana Elkargoarekin dakarren «EAJ eta euskara (Ehun urteko hibe malkartsua)»-ren zizelkada batzuk:

- ✓ Liburuak euskal erakundeak sortzen diren garairainoko EAJko gizon-emakumeen euskalgintza gogoratu nahi du.
- ✓ Euskalgintza eta kultur-gintzan murgildurik dagoen zenbaitek ez du politikan nabarmendu nahi, ez alde batera eta ez bestera; era askotako kristauak dituen apaizak bezalaxe, denentzat izan nahi duelako.
- ✓ Sabino Aranak eta bere jarraitzaile euskaltzaleek alderantziz jokatu zuten: ez zioten alderdi jakin bateko politikari ukorik egin, ezta alderdiko buruzagitzari ere.
- ✓ Euskaltzale-abertzale belaunaldi haren arian, «ez ziren politikan sartu Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, ikastolak, literatura... kontrolatzeko, alderdiaren zerbitzurako».
- ✓ Gerra aurrean eta ondoan gure herriaren eta hizkuntzaren alde dirua, denbora, buruhausteak, arriskuak eta lana eskaini zituzten eta bere seme-alabei euskara erakutsi zieten abertzale eta euskaltzale saiatu horiei zor baitiegu oraingo uzta. Ez dezagun ahaztu familia izan dela euskararen eskolarik onena.
- ✓ EAJri dagokio herri honen aurrerabidea eta etorkizuna gidatzea, baita euskararen normalkuntzan ere. Baina hori ez da egingo alderdiko buruzagi eta kargudun guztiek euskararekiko sentiberatasunik ez badute. Ezta euskaltzaleak eta kulturako jendea politikari gehiago lotzen ez bazaio ere.



bauen lana ez al luke aintzakotzat hartu behar-ko?

Egun, orokorrean, euskaltzalea urrundu egin da edozein alderditik, euskalduntze lana erakundeen eskue-tan utziz. EAJko gazte mili-tanteek, lehenik, euren gu-rasoek garai batean eginiko lana ondo aztertu behar-ko lukete; euskararen ardura, dagokion sailari laga bai-tiote.

Bigarrenik, euskalduntze lanean inplikatu eta norbere lanaz gain, musutruk jardun

daitezela. Era berean, euskararekiko ardurarik ez duen elebidunak, erraz egingo du gaztelerara ba-lantza: esfortzu bikoitza egin beharra dauka.

Zenbait mugimenduk euskara erakundeen aurka ekiteko erabili dute: hau da, sistema, nola hankaz gora jarriko. Borroka armatuak, euskaltzaleon baitan, tira-bira sortu ditu, eta euskaltzale batzuk urrundu egin dira.

JON ODRIOZOLA


La Casa del Café

— Juan Irujo S. A. —
DONOSTIA

«Entzikloklik» Harluxet Fundazioaren lehen produktu multimedia eta bide horri jarraitzeko proba

Faszikuluetatik Euskal Herriko Entziklopedia Nagusirako bidean

Euskal nortasunaren transmisioa dago Klaudio Harluxet Fundazioaren oinarrian. Entziklopedia horretarako bidea, eta multimedia bidezidorra; hasteko, «Entzikloklik» produktura daramana.



Aizpuruak dioenez, erdaldunen parean egoteko aukera dakar bide telematikoak. (Arg.: A. Elosgi).

DUELA bi urte sortu zen Klaudio Harluxet Fundazioa euskara eta euskal kultura informazioaren aro berrira moldatu beharra zegoela eta. Orduetik, hiru bide jorratu ditu Fundazioak: produktu elektronikoak egitea— «Entzikloklik» lehenena—; datu basea osatzea eta hirugarren bidea, barne datu

basea multimedia osatzea. Izan ere, oraindik ordenadore zentralak zatikatuta du informazioa: erregistro ezberdinak dituzte testu, irudiak zein soinuak. Guztiak elkartzea da helburua.

Atzean kapital handirik ez, eta teknologia berriek

jende gutxiagorekin lan egiteko aukera ematen diela dio Joserra Aizpuru Fundazioko kideak: «*Konbentziturata gaude hori dela bidea, gure inguruan jende gutxi mantentzea baina kanpoan jende eta bitarteko asko izatea.*»

Multimedia ezezik multiblea ere nahi dute datu basea. Informazioa mailakatuta izan arren, erregistro batean aldaketak egingo balira automatikoki gainarakoetan ere isla daitezten.

Orain arteko datu basetik atera diren produktuen bila,

«Gazte Entziklopedia», «El Huyar Hiztegi Entziklopedikoa», «Euskal Hiztegi Entziklopedikoa» eta «Entzikloklik» berria daude. Etorkizunerako Euskal Herriko Entziklopedia egin nahi du Fundazioak. Baina produktu guztiak bakarrik dute mira: «Eusena' da azken helburua: Euskal Entziklopedia Nagusia. 'Britanica' handi bat, 'Larousse'n' modukoa. Informazio guztia datu base bakarrean biltzea da helburua».

«Eusena' 2001. urterako

AMETSA besterik ez da hori, ordea, oraingoz: «2000. urterako esaten badizut, gezurra esango nizuke; tekniki nola egin ere ez dakigulako. Informatika fakultatean ere ez dakite. 'Eusena' egiten hasten garenerako, 2001. urterako, baldintza guztiak betetzen ez dituen base bat ez badugu ere, gebienak beteko dituen izango dugu sikiera».

Datu baserako testu informazioa El Huyarrek landu du batez ere. Informazio grafikoan, lehen, lagunen edo hainbat enpresen bidez lortutakoa zuten. Orain euren kontrolatu nahi dute prozesua: «40000 argazki erosi ditugu: argazki digitalizatuak CD-ROMetan, mundukoak, animalienak... Euskal Herriko informazio grafikorako lankide bat dugu; pertsonaietako asko ARGIAtik hartutakoak dira», dio Aizpuruak.

Lan handiak ematen ditu Euskal Herriko Entziklope-

'Entzikloklik' Fundazioaren lehen produktu multimedia

Liburuekin ez dago alderik egiterik, haietan informazio gehiagok du kabida baina gaur gazte askok ordenadoreetan soilik irakurtzen duela eta bide telematikoari segidu behar zaionaren uste osoz atera da «Entzikloklik». Klaudio Harluxet Fundazioak kalera-tutako duen lehen produktu multimedia da. «Diseinu akatsak izango ditu, baina hor dago errealitatea; lehenengo euskal entziklopedia da ete bereziki esperimentua da gu geu bide bontan hezitzeko», diote.

Horretarako, «El Huyar Hiztegi Entziklopedikoa» eta «Gazteen Entziklopedia» hartu dituzte oinarri: El Huyarretik Euskal Herriari dagokion zatia eta Gazteen Entziklopediatik artikulu nagusiak.

gia osatzeak. Ez dago aurrekaririk; «Aunamendi esaterako zabarkitua gelditu da eta udaletxe eta artxibotara jo beharra daukagu; Abalegina jende aditua biltzea izango da».

Euskal kultura, herriaren nortasuna eta izatea guztiak helburu ditu Klaudio Harluxet Fundazioak. Transmisio historikoa egitea dago oinarrian eta entziklopedia-gintza aukeratu dute horretarako. «Herri bizia izan

Argazkiak, bideoak eta soinua eranstea izan da ondorengo urratsa eta loturak asmatzea, 35.000 baino gehiago; guztiak eskuz eginda. «Astolana», diote kideek.

Eta lanaren ordaina, edozein informazio bilatzeko produktuak eskaintzen duen erraztasuna, azkartasuna eta aberastasuna da: hitzen bidezko bilaketa automatikoa.

Soinuan, trikitrixak, musika klasikoa (10 segundoko piezak) sartu dituzte. Eskubide arazoak izan baitituzte talde berrien piezak sartzeko. Bideoa berriz hitzez azaldu ezin litekeena azaltzeko sartu dute.

Salgai dago dagoeneko: 8.500 pezeta balio du (340 libera inguru) hasierako eskaintzan.

garela, mugitu garela sentitu behar dugu. Nola? ARGIAN, 'Euskaldunon Egunkarian', entziklopedian... Baina gero eta gehiago irakurtzen da ordenadorean ere. Nortasuna transmititu nahi dugulako erabiltzen dugu multimedia, ez modan dagoelako».

Izan ere eremu horretan erdaldunekin berdinetik berdineria egoteko aukera dutela ikusi dute. «Prensa-rekin alderatuz, hemen diferentzia ez da hainbestekoa. Edozeinek jar dezake orria Interneten. Euskal Interneta sortzeko gai bagara, hor irabaz dezakegu».

Ahalmenari traba diruak

jartzen dio. Fundazio pribatua da Harluxet. Patronatoa deitzen den aginte organoaren bidez hartzen dituzte erabakiak: Jose Mari Sors da lehendakaria, Paulo Muñoa lehendakariordea eta Andoni Sagarna idazkaria.

Kideak gehitu egin dira bi urteotan, 28 bat dira orain. Horien artean, Xabier Saizar Bankoa eta UZEIko presidentea; Joan Zelaia CEGASAKo presidentea; Joakin Berasategi (Sendoa); Angel Toña «Cilismo a Fondo»ko zuzendaria edota Iparraldeko Garapen-Kontseiluko lehendakari den Ramuntxo Kanblong aipagarriak.

Hauen laguntza ez dator pezetetan, ordea, izenetik baizik. Dirulaguntzei dagokionez, iaz 15 milioi pezeta (600.000 libera inguru) jaso zituen Fundazioak Kultura Saitetik eta 3 milioi Industriatik proiektu zenbaiterako. «Baina gu enpresa oso berezia gara, ez dugu industriaren katalogiorik oraindik. Gogoeta orokor bat egingo nuke: Administrazioaren laguntza behar dugu, baina loturak eten egin nahi ditugu».

Izan ere, euskal industriari bihurtu beharko lukete Herri honen kulturaren sponsor Fundazioaren iritziz. «Iniziatiba pribatuarekin askoz ere tratatu arinagoa lortuko genuke. Aitortu nahi nuke gure Fundazioak basieran izandako akats bat: Administrazioa jo eta abaztu egin ginen 'Euskaldunon Egunkaria', ARGIA-rekin... Hor bondoratu egin ginen, «LUR»ekin. Orain Administrazioa jo nahi dugu baina base sozial bat hartuta, begira gu guztiok gara esateko moduan».

MAITE ARTOLA

«Herri bizia izan garela, nortasuna transmititu nahi dugulako erabiltzen dugu multimedia, ez modan dagoelako»

Hizkuntza gutxituen filmeak ikusgai Zarauzko Eremuak 96n urriaren 21etik 26ra

Senide txikiak, eremu eske

Sekulan entzun al duzu ehiztari bat kazakheraz hizketan? Edota letoniarrek maitasunari egindako kantarik? Bada, eremu urriko hizkuntzak, senide txikiak, gertutik ezagutzeko aukera emango dizu Eremuak 96 zinemaldiak urriaren 21etik 26ra bitarte.

HEMERETZI filme eskainiko dira bost egunez Zarauzko Modelo zinema aretoan: sei sail ofizialean, hamaika sail paraleloan, aurkezpenean bat eta azkena —euskal zinemagintza zaharraren adibidea— klausura ekitaldian.

Sail ofizialean kazakhera, galesera, galiziera, berberera, erromantxera, estoniera, lituaniera eta letoniera erabiltzen dituzten filmeak



ikusteko aukera dago. Sei filme hauetatik Garikoitz Muñoz Eremuak 96ko ekoizleak hiru nabarmendu dizkigu: «Kazakheraz egindakoak ehiztari familia

baten istorioa du gai, txuri beltzean da eta oso bitxia; berbereaz datorrena hizkuntza bonetan egin den lehendabizikoa da, izugarri kostatu zaie, baina herria-

ren laguntzaz aurrera egin dute; 'Balti Armastuslood' filmeak hiru istorioa ezberdin kontatzen ditu, Baltiar Herrietako hizkuntza banatan».

Mitologiaren gaia hartuta datorren «La Rusna Pearsa» edo «Zulo galdua» erromantxe hizkuntzako filma Sail Ofizialean eskainiko da urriaren 25ean, iluntzeko zazpi t'erdietan.

SAIL OFIZIALEKO SEI FILME

FILMEA	HIZKUNTZA	ZUZENDARIA	EGUNA
"AZAL AUZYANDA" (Ehiztari familia)	Kazakhera	Shapina Musina	Urriak 21 (22:30)
"BALTI ARMASTUSLOOD" (Maitasun baltikoa)	Letoniera Lituaniera Estoniera	Peeter Urbla	Urriak 22 (22:00)
"A METADE DA VIDA" (Bizitzaren erdia)	Galegoa	Raul Veiga	Urriak 23 (22:00)
"TAWRIRT ITWATTUN" (Muino ahantzia)	Berberea	Abderrahmane Bougouermouth	Urriak 24 (22:00)
"LA RUSNA PEARSA" (Zulo galdua)	Erromantxea	Dino Simonett	Urriak 25 (19:30)
"BRANWEN" (Branwen)	Galesera	Ceri Sherlock	Urriak 25 (22:00)

Sail paraleloan frantsesa nagusi duten Afrikako zenbait estatuko hizkuntza gutxituez egindako laburmetriak eskainiko dira. Lau izango dira Afrikako hizkuntza gutxitu horiek: wolof (Senegalekoa), mandengue (Burkina-Faso, Mali, eta Boli Kostako hainbat zonaldeetan hitz egiten dutena), moré (Burkina Fasoko erdialdekoa) eta Txadeko arabiera (bertako nomadek hitz egiten dutena).

Aurkezpen ekitaldian katalanez egindako laburmetria bat eskainiko da, eta, azkenik, klausuran, «Au pais des basques» 1930eko filmea. «Guk dakigunez, Euskal Herrian soinuaz egin zen lehenbiziko filmea da bonako hau: aktoreek ez dute hitz egiten, baina euskal kantuak entzuteko aukera emango digu», azaldu digu Garikoitz Muñozek.

Epaimahaiari dagokionez, profesionalek osatua izango da. Epaimahaikideen artean Thérèse Marie, «Le Monde» egunkariak ikusentzunezkoei buruz argitaratzen duen gehigarriaren arduraduna, Flora Gomes, Eremuak 94ko sari nagusia irabazi zuen Ginea Bissauko zinegilea, eta Ramon Agirre euskal aktorea dira. Epaimahai honek erabaki behar du Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ematen duen sari nagusia —milo bat pezeteta (40.000 libera inguru)— zein filmeri eman. Sari honekin batera, Zarauzko Udalak aktore onena sari-tuko du, eta «Euskaldunon Egunkariak» ikusleen saria.

**«Hainbat talderen laguntza izango ez balitz, ezingo genuke zinemaldia antolatu»
GARIKOITZ MUÑOZ**

Erakundeek (Europako Batasuna, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zarauzko Udala) lagundu egin dute Eremuak 96 zinemaldia aurrera ateratzen: aurrekontua 18 milioi pezetakoa da (720.000 libera inguru) eta erdia baino gehixeago erakundeek emandute. Hala ere, laguntza hori ez da nahikoa Garikoitz Muñozen esanetan: «Erakundeetatik jasotzen duguna eskasa da; hainbat lagun eta talderen laguntza izango ez balitz, ezingo genuke zinemaldi hau antolatu».

Zinema bakarrik ez

EREMUAK 96 zinemaldi honetako hirugarren edizioa izango da. Aurreko biak arrakastatsu izan ziren oso. Hizkuntza gutxituetan egindako filmeek merkatu-

ratze zaila dutela eta, Zarauzko zinemaldiak filme horiei irtenbidea eman nahi die. «Orokorrean Estatu Batuetako zinemagintzarekin lebian aritzea zaila bada, are zailagoa da eremu urriko hizkuntzez egindako filmeentzat: gure helburua filme bauek euren eremuetatik atera daitezen laguntzea da», dio Garikoitzek.

Filmeen aukeraketa egiteko, antolatzaileek kalitatea dute irizpide nagusia. Urtean zehar egiten diren zinemaldietan adi ibili beharra dute; hala ere, nazioartean laguntzaile sare zabala dute eta honek asko errazten die lana. Garikoitz pozik dago aurtengo ediziorako hautatu dituzten filmeekin: «Ez dira nolanahikoak, kalitatea badute, eta batzuk oso bitxiak dira».

Zinema ezezik, kultura batzuk ere hurbildu nahi ditu gurera Zarauzko zinemaldiak. Honela, Eremuak 96k irauten duen bitartean, zinemaldian parte hartuko

duten filmeetako hizkuntzei buruzko erakusketa ikusi ahal izango da herriko musika plazan.

Aurtengo edizioaren berrikuntza nagusia zinemaldia egiteko data izango da. Orain arte, ekainean egin bada ere, aurten urrira ekarri dute. Garikoitz Muñozen esanetan, «beldur ginen ekainean eginez gero ez ote zen ezkutuan geratuko, Zarautzen ugariak baitira udara osoan eskaintzen diren ekitaldiak; urrian egitea erabaki genuen, eta jendea lanean hasia bada ere, Modelo zinema aretora etorriko dela uste dugu».

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere ez da euskal ordezkariarik izango Eremuak 96n. «Hori konpondu beharreko arazoa da, egun ez baita euskaraz filme bakar bat ere egiten. Euskal filmerik eskaini nahiko genuke, baina gaur ez dago hori gure esku», iritzi dio Muñozek.

ANDER USABIAGA

sek eguna

1996ko urriaren 20an
DONAPALEUN

TXARANGAK * TRIKILARIAK
ERREBOTE PARTIDA: Billabona- Donapaleu.
TXALAPARTAK * JOALDUNAK
IRKUS ROBLESen ERAKUSKETA

"Linboetatik guri so" ANTZERKIA
BERTSOLARIAK * KOLDO AMEZTOI
ETXE MOZKINEN ETA OFZIALEEN AZOKA
VIKONDOA aizkolaria * HAURREN XOKOA
GAITEROAK * ZIGANTEAK * HERRIKO DANTZAK
MICHEL DUCAU eta CAROLINA PHILIPPS
KILIKA TALDEA * HERRI BAZKARIA
HITZA HITZ EDO EMAZTEA HITS TALDEA
ROGER IDIART * GUK * PATXI SAIZ
HERRI KIROLAK * XABAITX eta H2O

BORDAGARAI AITA-ALABAK
MAGALI ZUBILLAGA * XALBADOR eta IHIDOI
ENAUT ETXAMENDI * AIRE AHIZPAK
ERRAMUN MARTIKORENA

ANIE DUHALDE taldearekin
TXAKUN * OTSONDO 602 * MICHEL ETXEKOPAR
JEAN MICHEL BEDEXAGAR eta MIKEL URBETZ
NAFARROAKO JOTEROAK
NIKO ETXART eta HAPA HAPA
TAPIA ETA LETURIA BAND

ZATOZ DONAPALEURA!

laguntzailea:



ARGIA

Euskarak gure baitan
dauka bere geroa

LIBURUAK



«MUNDU MINGOTSA»
JOSEF SKVORECKÝ
ITZUL.: KARLOS CID

ALBERDANIA, 168 or.
Txekian jaio eta egun Kandan bizi den Josef Skvoreckyren ipuin hautaketa egin du Karlos Cid madrildarrak: liburua txekieratik itzuli duena.

Zazpi ipuin mingots eta garratzetan Bigarren Mundu Gerra garaiko pasadizuak kontaktzen ditu egileak. Bohemiako K hirixkan gertatzen dira hauek eta Daniel Smiricky dute protagonista, istorio hauetako sei berak lotzen dituelarik. Ez dira holokaustoaz mintzatzen diren istorioak, eguneroko mundu mingotsean oinarritutako ipuinak baizik●



«MUSTLOA NAAAIZ...»
PATXI ZUBIZARRETA
IRUDIAK: MIKEL

VALVERDE
BAPOREA SAILA, SM, 58 or.

Patxi Zubizarreta ordiziarrak irakurtzen hasten diren-tzat idatzitako ipuina da honakoa. Familia baten gau aldrebesa aurkezten digu Mikel Valverderen marrazkien laguntzaz. Eltxo batekin dituzten gorabeherak, amuarekin trikimailuak eta aitaren istripua kontatzen dizkigu, etxeko txikiei irria sortaraziko dien istorio honetan. Zubizarreta 1993an lortu zuen Baporea saria «1948ko Uda» lanarekin eta hainbat lan idatzi eta itzuli ditu●

XABIER MENDIGUREN ELIZEGIREN BEGIETAN

Eta ez preso egon delako

Ari gara, Durangoko azoka hurbildu ahal, gero eta liburu gehiago ikusten den-detako apaletan. Bazen garaia: luze jotzen du udak euskal literaturarentzat, eta uda aurrekoa ere motel samarra izan da. Poesian, esaterako, ez da ezer kaleratu.

Poesiaren hutsune hori betetzeko, JC Perezen «Hau berua» erabili dut kotxeko irri-kasetean, alde batetik eta bestetik etengabe. Urteetan ez dugu izan horrelako altxorrik, eta kostako da, hurrengoetan ere, halako perla asko sortzea.


Txoko hau liburuena da ordea, eta zorionez badugu poesi bilduma bat: Mikel Ibargurenen «Hemen gauak lau ertz ditu». Bakardadea, malenkonia, maitasuna, ausentzia... ageri dira poemetan zehar. Elementu oinarritzko eta eternalez osatutako poesia. Fresnesko kartzelan idatzia dela jakiteak, aldiz, esanahi berria ematen die goiko gai horiei, kutsu erromantikoa testuinguru egokia ezarri.

Poesia esentzial honetan haxe azpimarratuko nuke nik: gauza xumeekin nolako poema simple eta aldi berean gutiz ederrak asmatu dituen: «Lehenbizi zure begiak ahoa», «Egunen batean»... Askok gustatu zaizkit, halaber, sentimenduen azalpenetik narratibitate batera igarotzen direnak: «Gaur beti bezala», «Jendarmak aurretik»... Mundu fisiko motz mugatua du erreferentzia moduan, baina lanaren laburrak galarazi egiten dio errepikakor suertatzea. Aipatzekoa da, nolana, liburuaren azken aldera zabaltze bat sumatzen dela, bai esaldien taxueran bai erabilitako alor semantikoetan.

Dena dela, poemak-eta ez dira hotzean kontatu edo aztertze, norberak dastatzeko baizik, eta Ibargurenen lehen liburu hunkigarri honek merezi du. Ez preso egon delako bakarrik. Baina horregatik ere bai, ez daukagu alferrik ahazteko.



«HEMEN GAUAK LAU
ERTZ DITU»
MIKEL IBARGUREN
SUSA



**«SOWETON
KONDATUAK»**
ELLEN KUZWAYO
ITZUL.: AINTZANE
IBARTZABAL
TXALAPARTA

Idazle hegoafrikar honen ipuinak dira «Soweton kondatuak». Hego Afrikako biztanle beltzen egungo bizi zail eta konplexua aztertzen da bertan, ahozko kontalarien teknika tradizionalaren bidez. Kontatzeko era tradizionala izateagatik, ez dira hala istorioak. Arrazismoaren ondorioak eta bera eragin duen egitura legala erakusten zaigu bertan. Idazleak Ben Okriren eta Nadine Gordimer Literatura Nobel Sariaren goraipamenak jaso ditu besteak beste.

«EUSKERA»

EUSKALTZAINDIA, 533 or. Euskaltzaindiak 1995ean hartutako erabakiak, egindako lanak eta agiriak biltzen dira liburu mardul honetan. Bertan, Patxi Goenagaren Euskaltzaindian sartzeko ekitaldia, Aita Gabirel Jauregiren omenaldia, Anai Innocentius Elizanbururen mendeurrena eta Gerhard Bahr hil zeneko 50. urteurrena biltzen duten lanak jaso dira.

Herri aginteekin egindako II. Hitzarmena, idaztarauak, onomastika eta gramatika txostenak eta euskaltzaindiaren inguruko berriak dira agertzen diren bestelako gaiak. Julio Caro Baroja eta aipameneko beste hildakoen oroimenarekin eta 1995eko aurkibidearekin ixten da liburua.



**«HARROTASUNA ETA
AURREJUZKUAK»**

JANE AUSTEN
ITZUL.: ANA ISABEL
MORALES
IBAIZABAL, 553 or.

XVIII. mendearen bukaeran jaiotako idazle ingeles honen idatzi zituen sei eleberrietako bat da «Harrotasuna eta aurrejuzkuak» hau. Austengan ohikoa zen gaia azaltzen zaigu hemen ere: bere garaiko gizarte galantearen inkoherentziari eta zurikeriari kritika.

Aurrejuzkuak gaizki ulertu mingarri batera eramango ditu bi protagonistak. Ironia eta umore fina darabilzki gehiegikeria guztiei, sentibleria erromantikoari eta ezkontzetako merkantilismoari barre egiteko.

**«KULTURAREN
ENIGMAK»**

MARVIN HARRIS
GAIK, 295 or.

Gaiak argialetxearen azken lanean kulturako zenbait enigma argitu nahi dira. Behiak, zeriak, gerrak eta sorginak aztertu ditu «Antropologia orokorrari sarrera» eta «Antropologia kulturala» lan ospetsuak idatzi zituen Marvin Harrisek. Hinduek zergatik gurtzen dituzten behiak, mugimendu mesianikoen sorrera edo errenazimenduko sorgin ehizaren arazoak aztertzen dira, besteak beste, liburuan.

Hainbat bizimoduren atzetik ezkuta daitezken arazoi materialak bilatzen saiatu da 1927an Estatu Batuetan jaiotako Harrisek. «Kulturaren enigmak» ezagutzeko parada ezin hobe.




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel.: 42 82 89 Faxes: 42 12 56
20 004 DONOSTIA

TEXTO LIBURUAK
ERE BADITUGU

«LAZKAO TXIKI»
BERTSOPAPER LEHIAKETA
1992 - 1996




Argi-Berri Elkarte

«LAZKAO TXIKI»
BERTSOPAPER
LEHIAKETA
1992-1996»

ARGI-BERRI ELKARTEA,
134 or.

Ordiziako Argi-berri elkar-
teak urtero antolatzen duen
Lazkao Txikiren omenezko
bertsopaper lehiaketako lan
sarituak bildu ditu argital-
pen honetan. Bertsoez gain,
hauek kantatzeko erabilita-
ko doinuen partiturak ere
badakartza liburuak ●



«TT L.T.»
ESAN OZENKI

Bizkaiko talde honek iazko
Euskadi Gaztearen maketa
lehiaketa irabazi zuen eta
merkatuan azalduko den
euren lehenengo lana da
honakoa. Broken Bihotz
taldean aritutako Rafa Rueda

Euskal-afro musika

Lehenik eta behin, ongi eto-
rria eman behar lehen eus-
kal-afrikar taldeari; definizioz
horrela hartu baitezakegu
King Mafrundi, Jimmy Arrabit
baterijole bikain eta ezagu-
naren inguruan osatutako
taldea. Hauxe da haien lehen
lana, eta nahastu egingo da
ohiko disko afroa, kasu honetan
euskaraz, topatu nahi
dutenak. Eragin afro nabariaz
gain, reggae izpiritua baitago
eta bi horietaz gain, jazz eta
funkyaren itzalak dira nagusi
lan honetan, non azkenean
musika kosmopolita izango
den jaun eta jabe.

Eragin asko dira ordea,
elementu asko orekatzeko
eta oro har lana maila onean
mugitzen bada ere, batzutan
indefinizio musikalak era-
gindako konfusioak kantua-
ren lerroa hausten du. Gehie-
gizko inuditzen zaizkigun gi-

tarra distorsionatu solo ba-
tzuez ari gara batez ere edo
klabe jazzeroetan mugitzen
diren hainbat eta hainbat le-
rroez.

Bestela, oinarri erritmikoak
makina baten modura lan
egiten du, faltan botatzen du-
gularik agian perkusioen
presentzia nabariagoa, bate-
riaren eta gitarraren lan apala
edertzeko. Kantuetan asko
gustatu zaigu «Dunia» kon-
pakto osoko kanturik bikai-
nenetakoa, baita «Afrika itza-
la» jazzero funkyena edo
«Freedom» bezalako konben-
zitzeko moduko reggaeak.

Laburtzeko, fresko eta in-
dartsu den lana nahiz eta
oraindik talde honek askoz
ere gehiago eman dezakela
susmatu, gehiegi argitu eta
sendotasun gehiago eman ez-
kero beraien musika lanari,
gure uste apalean behintzat.



«KING MAFRUNDI»
KING MAFRUNDI
ESAN OZENKI

buru duen Mungiako lau-
kote honek mojen komentu
batean grabatu du diskoa eta
bitxikeri gisa aipatu da lehen
singlearen izenburua «Hil da
Jainkoa» dela.

Teklatuen indarra eta
musika aldaketa bortitzak
dira talde honen ezaugarri-

rik nabarmenenak, euren
hitz garratzekin batera. Guz-
tira hamabost kantu bildu
dituzte, horietatik bat (When
the tary now part 3) rap
bertsioan musikatua. Egun
Euskal Herrian egiten den
musikaren eragina duen tal-
dea da honakoa ●

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Aitzol fusilatu zuteneko eszena Abadiñoako Astola etxean grabatu zuten. (Arg: Angel Ruiz de Azua).

Hirurogeigarrenean Aitzol

Urriaren 18an 60 urte beteko dira Aitzol fusilatu zutela. Egun horretan Aitzoli eskainitako orduerdiko dokudrama eskainiko dute Euskal Telebistan, -aurrez Leizaolarekin egin zuten bezala eta beranduago Lizardirekin egingo duten bezala-. Sabino Arana Fundazioaren «Zabaltzaileak. Leizaola, Aitzol, Lizardi. Belaunaldi baten giltzarri» deituriko erakusketaren barne dira bideo hauek.

HIRU izen: Leizaola, Aitzol eta Lizardi. Hiruak batu dituzte Sabino Arana Fundazioaren «Zabaltzaileak. Leizaola, Lizardi, Aitzol. Belaunaldi baten giltzarri» erakusketan. Erakusketaren osagarri hirurei buruzko bideo bana egin dute. Bideoaren eragile fundazioa izan bada ere, honek Euskal Telebistaren eskutan jarri zuen ideia. Ondoren Euskal Telebistak Itesa eta Network

ekoiztetxeen bidez gauzatu du lana.

Leizaolarena duela aste batzuk bota bazuten, Aitzolena urriaren 18an, Jose Ariztimuño «Aitzol» fusilatu zutenaren 60. urteurrenarekin batera emango dute Euskal Telebistan. Jose Antonio Rodrig ez Ranz, Deustuko Unibertsitateko irakaslea izan da gidoilari. 18an pantailaratuko denari buruz dioenez, «Aitzolen bizitza-

ren inguruko produkzioa da, eta produkzio horretan artxibo materiala, gaur egun filmatutako kanpoko irudiak, eta dokudramatizazioa ere sartu dugu. Aitzolen atxiloketa, espetxean jasotako torturak, fusilamendua... hori dokudramatizatu egin dugu»

Aitzolen bizitzaz historia lineal bat egin beharrean, arloka eta arlo bakoitzean berarekin hori landu edo

bizi zuen norbaiten eskutik egin nahi izan dute. Hiru alderdi azpimarratu nahi izan dituzte: «Lebendabizikoa apaiz alderdia, misiolaria, berarekin Comillasen egondako apaiz kide batek kontaktzen du pasarte hori. Gero gizartegintzan edo sindikalgintzan egindako lana egiten da orduko sindikalista baten eskutik, eta kultur-gintzan garai haretako fikziozko poeta baten eskutik.

Abadiñoako Astola etxea Ondarretako presondegia eta Hernaniko hilerria bihurtu zen eta Ondarroako Hermanos Solabarrieta itsasontzia Aitzol atxilotu zuten Galerna itsasontzian bilakatu zen grabazio egunean. Rodrig ez Ranzek egun hortakoari buruz dioenez, «Aitzol atxilotu zutenean itsasontzi batetik bestera pasa zuten eta hanka okertu zitzaion. Pasadizu horiek gauzatzerakoan nolabaiteko arazo teknikoak izan genituen».

Tartean hainbat jende elkarrizketatu dute. Aitzol ezagutu zutenen artean: Xabier Diharce «Iratzeder», Ramon Labaien eta Iñaki Eizmendi «Baseri». Hauekin batera Joseba Goñi eta Ludger Mess Aitzolen ekarpen historikoari buruz aritu dira.

Orduerdiko bideoa egiteko jende multzo zabala aritu da lanean: errealizadorea Joseba Butron izan da, gidogilea lehen aipaturiko Jose Antonio Rodrig ez Ranz, Joseba Agirretxearen laguntzarekin. Atrezzoarekin Jose Mari Tuduri aritu da, eta Aitzoli bizia eman dion aktorea Jose Mari Leza izan da eta beste horrenbeste jende izan da tartean zerrenda luze bat osatu arte.

ARRITXU ZELAIA

Mikel Irizar: « 'Hitzaro' jende estilo jakin batentzat da interesgarria »

Mikel Irizar aritzen da astero Aintzane Gardokirekin batera euskararen inguruko berriak ematen. **Iaz izan zuten ikuslegoaren harrera ikusirik, aurtan ere «Hitzaro» ildo beretik jorratzea erabaki dute. Erreportaia sakonagoak izango dira saioko aldaketa bakarra.**

Saioaren edukia zerbaitetan aldatu al da?

Ez da gehiegi aldatu. Aldaketa nabarmenena elkarrizketatua programako gai nagusiarekin lotutako norbait izango dela da. Erreportaiaiko gaia modu zabalean jorratuko dugu zazpi bat minutuetan, horretarako gaiaren inguruko buruz protagonista elkarrizketatuko dugu. Bestela progra-

maren eduki, eskema eta jorratzeko modua nahiko antzekoak dira.

Zein da «Hitzaro» eta «Lengua viva» saioak izateko funtsa?

«Hitzaro» euskaldunentzako informatibo bat da, berriantzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak jorratu behar ditugu. Eta erdaldunentzat informatiboa izateaz gain, euskarara elebitasun-

naren abantailak azalduz hurbiltzea nahiko genuke. Bereizketa hori sakontzea dugu asmoa, erdaldunengana ahal den eta gehien iristeko.

Urtebeteko esperientziak ikusle goi bati eman al dizue?

Programa ikusle goi nahiko zabalarentzat izan zitekeen, jorratzen diren gaiak jende askori dagozkionak. Baina, programaren definizioa, planteamendua eta ematen den ordua dela-eta, jende estilo jakin batentzat da interesgarria. Halaber, ikusle goi leiala daukagu, hori guretzako oso garrantzitsua da. Ikusleak programa astero jarraitzea eta hau ikusten gustura sentitzea nahiko genuke.

Astean orduerdik gaiak sakontzeko aukerarik ematen al du?

Gure asmoa programa informatiboa modu arin eta entretenigarrian egitea zen. Beharbada, euskarari buruzko eztabaida sakonak ez dira telebistan egin behar, nire ustez, orduerdikoak baino informatibo luzeagoak ez dira egokiak izaten. Horrek ez du esan nahi euskarari buruzko azterketa eta eztabaida sakonak gure programan lekurik ez dutenik.

TXORI BATEK

ESAN DIGU

Gaelikozko telebista berria martxan

Urriaren 31n Telifis na Gaelige (TnaG) izeneko telebistak lehen seinalea zabalduko du Irlandar Errepublikara eta Ipar Irlandako etxeen % 90era.

Egunero hiru ordu-tako programazioa izango duen telebistaren seinalea bidaltzeko sarea sortzeko, 16 milioi irlandar libera beharko dira. Haue-tatik 10 milioi diru publiko dira, falta dena osatzeko beste diru iturrien bila dabilta.

Lege mailako autonomia lortu bitartean TnaG RTE-ri (Irlandako beste telebista) lotutako telebista kanal bezala administratuko da. Programen produkzioaren ardura RTE eta ikus-entzune-ko ekoiztetxe independenteei emango die, TnaG-ren funtzioa editoriala eta emisorea izango baita soilik. Honez gain Europako telebistatik produkzioak erosi eta bikoizteko asmoa dute.

Telebistaren egoitza nagusia Conmemara Gaeltacht eskualdeko Baile na hAbhann-en eraikitzen ari dira. Hogeita-mar langile izango ditu TnaGk eta zeharka 150-250 lanpostu sor ditzakela uste da.



Mikel Irizarrek dioenez ikusle goi leiala du «Hitzaro»-k.

ITZIAR CARRASCO




■ «Sylvan» marrazki-bizidunak iganderako

«Sylvan» marrazki-bizidunek protagonistaren bitartez Erdi Aroko kondairak eta zaldun abenturak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Aste honetan «Zorionaren kutxa» atalean Sylvan gazteak Linmer axtiarekin batera abentura izugarriak biziko dituzte. Igandean, 9:25ean.

■ «Txiskola»k estreinatu du etapa berria

Kike Amonarraizek eta bere lankideek «bigarren faseko topaldieak» hasi dituzte. Berrikuntzak egongo diren arren, umorezko saio hau

ildo beretik jarraituko du eta txiste lehiaketa, esketxak eta ekitaldiak izango dira tartean. Parte hartzaileek bertan dauden ikusleen txaloak irabazi behar dituzte eta «Barretzaindia»k neurtuko du haien antzezpena. «Txiskolak» iaz ikusleengandik jasotako erantzuna aurten ere jasotzea espero dute. Astelehenetan gaueko 22:00etan.



■ «Elkartasunaren bideak» erreportai bilduma

«Elkartasunaren bideak» saioan Euskal Herritik Hegoameriketara eta Ertamerikarako ematen diren dirulaguntza nola banatzen duen ikus daiteke. Garapen bidean diren herriak laguntzeko orduan dagoen mesfidantza gainditzeko asmoz eginiko saioa da «Elkartasunaren bideak». Joseba Arredondok koordinatzen duen kazetari taldea (Jon Iñaki Asla, Iranzun Mentxaka, Aitor Zabaleta, Alberto Letona, Javi Atutxa eta Maite Amundarain) erreportaiak egiteaz arduratu da. Hilabete ho-

netan Ekuadorren da lantaldia eta datorrenean berriz Santo Domingon izango dira dirulaguntzen ibilbidea jarraituz. Astelehenean gaueko 23:35ean izango da ikusgai.

■ «Mugak gaindituz» arratsaldero abentura istorio berriekin

«Mugak gaindituz» saioa orduerdiko hogeita sei atalez osatua dago. Saioko protagonistek uretan lurtean edo zeruan bizitako abenturak eskaintzen dituzte, esperientzia hauen bitartez euren ametsa errealtate bilakatzen dute. Programa bakoitzean bidai izugarria eskaintzen da, bertan errealtateak fikzioa gainditzeko duten irudiak ikusteko aukera ematen digu. «Mugak gaindituz» astelehenetik ostiralera arratsaldero 17:00etan «Bosteko familia»-ren osten emittitzen da.

Z A P P I N G

«Zarauzko Baserriak» eta txakolinaren inguruko erreportai Zarauzko Telebistan

ZARAUZKO Telebistan programazio berria martxan jarri dute jada. Txanda honetan asteazkenean «Zarauzko baserriak» izeneko programa eskainiko dute. Saio honekin Idoia Etxeberriak Zarautz inguruan diren baserriak ezagutzeko aukera emango du, asetero baserri batean izango dira eta baserriaren bilakaera, izandako aldaketak eta gaur egun bizi duten egoera aztertzen saiatuko dira.

Ostegunean txakolinari buruzko erreportai eskainiko dute Zarauzko Telebistan. Zarauzko txakolingileak mahatsa biltzen hasi dira jadanik eta txakolin ona lortzeko beharrezkoak diren osagaiak azalduko dituzte.

Bestalde igande eta astelehen honetan Zarauzko kirol taldeek etxetik kanpo jokatzeko dituzten partiduen berri emango dute. Aurrerantzean ere igande eta astelehenetan aipaturiko kirol emanaldiek lekua izango dute.

Programazio berria TeleBilbaon

URRIAREN hasieran jarri zen martxan TeleBilbaoko programazioa. Bilbo Handira zabaltzen den telebistan honen iaz bezala euskara hutsean saio bakarra eskaintzen du. «Euskaraz onena» izeneko saioa astelehenetik ostiralera izan ohi da 13:30ean. Arratsaldeko haurren saioa elebiduna dute.

Iaz arrakastatsuenak izan ziren

saioak aurten ere segida izango dute, hala nola, «Gente con marcha» kalez kale eginiko inkesta, «Diario local-albistegia», «Bilbosport» eta «Boquita de piñon» magazina.

Iazkoei beste batzuk gehitu zaizkie. Ostegun gauetan «Vas a ver lo que es bueno»-n telebista barrutik erakutsiko dute. Gau berean «Esto es un desastre» izeneko lehiaketa aurkeztuko du Ricardo Velascok. Aipaturiko saio hauen ondoren izango da «Asi de corto» programa. Saioan telebistan leku txikia ohi duten labor-metraiei tartea eskainiko diote.

«En forma» aerobic egiteko saioa astegunero eskainiko dute arratsaldetan. Astearen azken egunean «No es bueno que el hombre este solo»-magazina pantaiaratuko du Joseba Solozabalek.

Euskadi Irratikoko leihoak solasari zabalik

Siestako orduan, 14:30etan hasten da «Salako leihotik» irratsaioa. Jon Aizpurua eta Mari Karmen Garmendiak arratsaldero leihoa ireki eta ordu t'erdian kaleko kontuak jasotzen dituzte Euskadi Irratikoko egongelan.

DUELA hilabete, antenaratu zen lehenbizikoz «Salako leihotik» magazina. «Eguredietan, siestako orduan da saioa» diote saioiko Mari Karmen Odriozola eta Jon Aizpuru esatariek.

Ohiko magazinaren egitura antzekoa du «Salako leihoa»-k, hala ere arduradunen hitzetan, «eguneroko gauza programatutatik aldegin nahi dugu. Saio bat programatuz gero jendeak badaki zertaz hitzegin behar dugun».

Aurkezleak kontu kontari, saioraren zatirik handiena elkarrizketetan, telefonoz deitzen duen jendarekin hitz egiten aritzen dira, «*ahal dela jende askorekin eta egunero jendeak dituen arazoei buruz hitz egin nahi dugu. Batez ere gizarte gaiak jorratu nahi ditugu, osasuna, beziketa, ospakizunak... Ordu hori ez da gai sakon eta korapilotsuetan sartzeko aproposena*».

Bi goierritar hauek irratsaio mota ezberdinetan ari-



Mari Karmen Odriozola eta Jon Aizpurua aritzen dira eguerdiko «Salako leihoa»-n. (Argazkia: Alberto Elozegi).

tu izan dira orain arte. Mari Karmenek honela dio, «Jon Aizpurua informatiboetan ibili izan da gehienbat, hala ere informatibo serioegiak ere ez ziren eta magazine tankera zuten». Mari Karmen aldiz magazine saioetan jardun izan da.

Saioaren izenaren zergatiaz zera diote, «*fisikoki lei-*

boa izango litzateke gauzak eta arazoak ikusteko aukera. Bestalde sala horrek badu tradizio bat, jende gazte gazteari irudituko zaio erdal kutsua duela, baina nik uste nahiko tradizio daukala» dio Jon Aizpuruak.

NAGORE GOIBURU

B A G A K

■ «Gezur flash» irratsaioa Irulegi Irratian

Ostegunean urriaren 18an, Jojo Bidart ahotsean izango da «Mintzaleku» irratsaioa. Egun berean, «Azalegi» kultur emankizuna eskainiko dute. Arratsaldeko irratsaio hau Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegi Irratiak txandakatuz egin ohi dute irratsaio hau, aste honetan beraz Irulegikoen txanda izango da. Afal ondoren, «Sokatira» saion bi talde arituko dira galdera-erantzun norgehiagokan, Pantzo Hirigarai eta Mari Ines Gorostiaga izango dira bi talde hauek gidatuko dituztenak.

Ostiral arratsaldean, «Alboka»-n euskal kantagintzaren historiak hartuko du

lekua. Saio Mari Ines Gorostiaga esatariaren eta Maite Idirinen kantaria ezagunaren eskutik eskainiko da.

Aste burua heltzarekin batera «Gezur flash»-en Pantzo Hirigarai eguneroko albisteen azterketa satirikoa egingo du.

■ Herrietako albisteak Euskalerrria Irratian

Euskalerrria Irratian arratsaldero 15:30etik 16:00etara bitartean herrietako kronikak eskaini ohi dituzte «Hesirik gabe» saioan. Bertan izan ohi diren herriak dira: Burlata, Barañain, Atarrabia, Tuter, Tafalla, Lizarra, Nafarroa Beherea, Baztan-Mallerreka-Bortziriak, Larraun-Araitz, Aezkoa-Erroibar eta Sakana.

A U R P E G I A



Koldo Alduntzin (Egin irratia)

Kazetari honen kirol-kritikak hainbat euskal komunikabidetan entzun eta irakurri ditzakegu. «*Duela zazpi urte hasi nintzen rugbi partidu batzuk komentatzen eta Egin irratian Ander*

Txintxurretarekin kirol gaiak jorratzen». Anderrrek atzerriera aldegin eta «*nik saioaren gidaritza hartu nuen, beste lankide batekin*».

Egun berriz, kolaboratzaile da herri-kirol kontuetan «Egin» eta «Euskaldunon Egunkarian». Iaz Euskal Tebistan Iparraldeko kirolen berriak bere ardurapean uztea proposatu zioten.

Kazetaritza munduan han eta hemen lan egiteaz gain, euskaltegi batean hamazazpi urte daramatza irakasle lanean: «*aurrerantzean zerbait utzi beharrean nago, bestela lanez itoko naiz*».

92 kilo galdu ditu hiru astetan

RECEP Karsikan, hogeita hamazazpi urteko gizona (seguruenik, gizontzarra esatea hobe litzateke), hain zegoen gizona ezin zuela inolaz ere ohetik jaiki. Gure turkiar honek 317 kiloko pisua zuen eta egun osoa ohean etzanda ematen zuen, bere gorputzaren pisu ikaragarriak ez baitzion aukerarik ematen inolako mugimendurik edota jardun fisikorik egiteko.

Thomas Akyar dietista alemaniarrek jarritako jan-neurri zorrotz baina aldi


berean eraginkorra jarraituz, 92 kilo galtzea lortu du gure gizonkoteak hiru asteko baraua egin ondoren. Orain, askoz ere hobeto sentitzeaz gain, etxetik irteteko moduan dugu Recep eta gai da paseotxoren bat edo beste egiteko. Hala ere, oraindik kilo asko galdu behar ditu turkiar honek pertsona 'normal' baten mailara etortzeko. Recepek esker ona zor dio Akyar doktoreari eta beronek jarritako dietari, nahiz eta dieta oso gogorra izan zela aitortu duen. Izan

ere, jan-neurriak ez baitzion ia ezer jateko aukerarik uzten.

Orain, ordea, merezi izan duela dio eta pasatutako une txarrak ahaztu egin nahi ditu. Beste kilotxo batzuk ere galtzekotan omen da oraindik. Bere oraingo itxura ikusita, kalterik ez liokeela egingo esan beharra dago.

Dena den, bada marka edo 'errekor' hau hautsi duenik ere. Teletipoek gezurrik esaten ez badute, Michael Hebranko izeneko gizonak 130 kilo galdu omen ditu bi hilabete ospitalean eman eta gero. New Yorkeko bere etxetik ospitalera joateko, baina, horma bat hautsi eta sekulako zuloa egin behar izan zuten. Ondoren, horrelakoetarako propio egokitutako anbulantzia garraiatu zuten. Medikuek alta eman diote, eta oraindik ere 270 kiloko pisua duen arren, gaur egun arnasketa-artifizialik gabe arnas hartzeko eta ibiltzeko gai da Hebranko ■

Recep Karsikanek esker ona zor dio Akyar doktoreari eta beronek jarritako dietari, dieta oso gogorra izan zela aitortu duen arren; izan ere, jan-neurriak ez baitzion ia ezer jateko aukerarik uzten



L A N D A R E A K

JABIER AGIRRE

Hazien negua

UDAZKENA zuhaitz gehienek haziak botatzen dituzten garaia da. Hazi horiek zuhaitzaren hankapeko belar edo orbel artean babesturik igaroko dute onegua. Gero, udaberri epel eta hezea etortzen denean, ernetu eta sortu zituen zuhaitzaren tankerakoak izango diren landare berriak sortzeko.

Hau, paregabeko zoria izan duen haziaren historia da. Bera bezelako hazi asko eta asko tartean alferrik galdu egin dira, gehientsuenak, gu bezalako animalien sabeletan (intxaurrak, hurrak, gurpitzak, masustak eta abar luze bat).

Gure inguruko zuhaitzen hazia negua igarotzeko prestatua dago. Udazken amaian edo neguan ernetu eta

landarea sortuz gero, ahul hau laster hilko litzateke. Edozein hazik emango duen landarearen iraupena ziurtatzeko, ernetzerako negua joana dela jakitea nahi eta nahiezkoa du.

Haziak hotza pairatu behar du. Pairatu eta ez nolana gainera! Haziak hotz-orduak zenbatu egiten ditu, eta berarentzako aproposa den tokian izaten den gutxi gora-beherako neguko hotza pasea dela dakienean, ernetu egingo da. Hau da, klima bat, landare batzuk.

Beraz, datorren udaberrian edozein eratak zuhaitzen haziak ereiteko asmoa izanez gero, bildutakoan negua sentitu behar duela ez ahaztu. Hau da, etxeko trastero edo sukalde epel eta



lehorrean ez jaso. Kanpoan eta ahal bada hondarretan sarturik; eta euritako ura hartzen ez badu, ureztatzea ahaztu gabe ■

JAKOBA ERREKONDO

Bizkaiko eta Euskal Herriko erpin ezagun eta zapalduena: Anboto

Durangaldeko bailaran galanki altxatzen da Anboto mendia. Bailarako behatoki guztien artean, bere osotasunean karearriz osatutako 1.000 metroko horma hau da erakargarriena. 1.296 metrotaraino heltzen den erpina gailentzeko, Urkiolako Santutegitik hastea da egokiena. Eskalatzeko aukera ere badago. Gainera, Mariren kobazuloaren albotik pasatzen da bide bat.

ANBOTO Bizkaiko hego-ekialdean dago eta Durangaldeko haitzen artean erpin harritsu garaiena da; hala ere, ez horregatik erakargarria den bakarra. Anbotoren pareko edertasunarekin eta harrotasunarekin altxatzen dira Gipuzkoako Udalaiz eta Bizkaiko Mugarra, Untzillaitz edo Alluitz mendiak.

Hainbat bide aukera daitezke Anbotoko gailurra zapaltzeko, baina Urkiolako mendateko Santutegitik abiatzen dena da erabiliena, nahikoa erraza baita. Bidea nondik doan erakutsiko diguten hainbat bide-seinalerekin egingo dugu topo. Urkiolatik Zabalandi izeneko mendi-leporantz joko dugu, 905 metroko garaieran. Mendi-lepo hau Anbotoren atzealdean dago. Hemendik aldapa gogor eta harritsu bati ekin beharko diogu, 450 metroko haitza gainditzeko. Igoeraren zati honek badu bere zailtasuna ere, zenbait gune malkartsuak direlako oso. Bide-zidorraren bi aldeetara, bailarako zelai berdeak ikusi ahalko ditugu, baina oso behean.



Goiko argazkian, Udalaiz mendiaren ikuspegia. Anboto mendiaren alboan erpin harritsu ugaro dago. Erdiko argazkian, Anbotoko ekialdeko aurpegia. Aurpegi hau da guztien artean ikusgarriena eta zailena. Beheko argazkian, aldiz, Anbotoren ikuspegia Zabaltegioko mendi-lepotik. Bide hau da gehien erabiltzen dena.



kadu eder bat dastatzeko parada ere izango dugu.

Beste biderik bada, ordea, Anbotora igotzeko. Atxondotik abiatuta topatuko ditugu igoera ikusgarrienak. Iparraldeko aurpegiak eskalada-bide errazak ditu, eta ekialdeko aurpegian, berriz, Euskal Herriko eskalada-bide garrantzitsuenetakoa dago. V. eta VI. graduko pasabideak ugari dira. Erakargarritasun berezia, hala ere, Mariurrika edo Mari damaren kobazuloa da. Kobazuloa 1.160 metroko altueran dago, eta kutsu magikoa ematen dio Anbotori. Kobazuloa gertutik ikusi ahal izateko, bide konplexu batetik igo behar da.

Atxarteko harrobietatik eta Arabako Aramaio herritik ere igo daitezke Anbotora. Aukera anitz Euskal Herriko erpin ederrenetakoa batera igotzeko ■

**ANDONI URBISTONDO
MIKEL EGAÑA**



ANTZERKIA

18 ● Arrigorriagako Festivo Aretoan, «**Txintxilipurdi erregea**» eta «**El rey Volteretas**» txotxongilo-obrak aurkeztuko dituzte gaur 18:30ean.

● Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiak aurrera darrai. Gaur eta bihar, **Carmen Cortes Dantza Konpainiak** «**Yerma**» obra taularatuko du. Hilaren 22an **Equipo Teatro Llanurak** «**Actores de provincias**». Bi emanaldiok Principal Antzokian izango dira, 20:30ean. Hilaren 20an, haurrentzako sailean, **Pluja Teatrek** «**Planeta Shakespeare**» aurkeztuko du 20:00etan. Beñat Etxepare antzokian, **Equipo Teatro Llanurak** «**El clasico binomio**» eskainiko du 23an 20:30ean.

ERAKUSKETAK

18 ● «**Komikiak 100**» erakusketa ibiltaria Arrasatera iritsiko da gaur. Komikiaren mendeurrenaren inguruan antolatutako erakusketa honetan, komikien hizkuntza eta komikiaren ofizioa ezagutu daitezke. Horrez gain, **komikiaren historiako pertsonaia mitikoenen irudiak** ere aurkeztuko dizkigu. Azaroaren 3ra bitarte egingo da Arrasaten.

● Zarauzko Photomuseum Argazki Museoan, **Ernst Ludwig Kirchner** ale-

Getxoko XIV. Antzerki Topaketen barruan, hainbat lan ikusteko modua izango dugu asteon. Urriaren 18an, Bederen 1 taldeak «Zu(t)gabe» obra antzeztuko du Getxo Antzokian, 19:30ean euskaraz eta 22:30ean gazteleraz. Hilaren 19an, Scaramouchek «El Dr. Livingstone, supongo?» aurkeztuko du San Nikolas plazan 13:00etan. 18:00etan, berriz, Peter Robertsen «Marratxo» ikusi ahalko dugu Zabala Eskoletan. Eta 20:30ean, Markeliñeren «La Garbos.a.» Getxo Antzokian. Igandean, oster, hiru lan izango dira ikusgai: Zirko Ttipiaren «Munduko malabaristenak» 13:00etan



San Nikolas plazan, Kiriki, Kika eta Ritaren «Kiriki, Kika eta Rita» 18:00etan Zabala Eskoletan, eta Traspasos taldearen «Pasarela» 20:30ean Getxo Antzokian.

maniar margolari handia zenaren argazki-bilduma dugu ikusgai. Erakusketa eder hau azaroaren 10era bitarte egingo da zabalik.

19 ● Gaur eta bihar, **Mikel Laboaren argazki, kartel, disko eta materialen erakusketa** ikusi eta ezagutzeko aukera ezin hobea izango dugu Etxalarko Eskola Zaharretan.

22 ● **Mugarik Gaberen «Gerra Vs. Bakea» izeneko erakusketaz** gozatu ahalko dugu gaurtik hilaren 31ra bitarte Getxo Antzokian. Gainera, asteazkenetan izan ezik, arratsaldero bideo-proiektzioak emango dituzte 19:00etatik aurrera.

IBILALDIAK

20 ● Ordiziako Mendizaleak elkarteak eta Euskal Mendizale Federakundeak **XIX. Helduen Ibilaldi Neurtua** antolatu dute gaurkorako. Goierriko mendietan barrena egingo da txangoa. **Aurtengo Mendi Federazioko lizentzia duen 50 urtetik gorako mendizaleek har dezakete parte.** Mendizaleak taldearen egoitzan edota iteerra-mahaian bertan eman daiteke izena. 20 kilometroko ibilaldiaren ostean, 2.700 pezetaren (108 libera) truke Tximista sagardotegian egingo den bazkarrira joateko modua izango da.

IKASTAROAK

18 ● Donostiako Larrotxene Kultur Etxeak eta Intxaurren rondoko Mendi Taldeak **Autobabesa Mendian** **Ikastaroa** antolatu dute. Mendian seguru ibiltzeko arauen berri eskainiko dute. **Ikastaroa hilaren 22an eta 24an emango dute.** Izena emateko deitu (943) 29 19 54 telefonora.

21 ● Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak ikastaroa antolatu du hilaren 26 eta 27rako: **Hastapena eta Ziurtasuna** **Goi Mendian.** Ikastaroa Panticosan egingo da. Gaurkoa da izena emateko azken eguna.



«**Euskarak gure baitan dauka bere geroa!**» lelopean, hilaren 20an **AEK Eguna** burutuko da **Donapaleun.** Animazioa sobera izango da egun osoan, zortzi eremutan banatuz

ekitaldiak: Errepublika Plazan, Merkatu plazan, Meinjou auzoan, Herriko Etxean, D'Arthez eskolan, eliza ondoan, Pilota plazan eta Airetik gelan. Ekitaldi ofizial, bazkari, pilota partidu, haurrentzako jolas, antzerki, dantzari, erakusketa, mintzaldi, txalapartari, bertsolari eta abarrez gain, musika izango dugu nagusi eremuotan: Mixel Ducau eta Caroline Phillips, Aire Ahizpak, Niko Etxart eta Hapa-Hapa, Xalbador eta Ihidoi, Anje Duhalde, Txakun, Erramun Martikorena, Tapia eta Leturia Band... Euskarari eta AEKri bultzadaxoa emateaz gain jai-egun aparta igaro nahi baduzue, ezin hutsik egin zitara.

JAIALDIAK

20

Igandea

● **Euskal Laborarien Batasunaren festa burutuko da gaur Bankan.** Eguerdian bazkaria egin ostean, arratsaldean kantaldia izango da bertako kantariekin. Gau partean, berriz, afaria.

JARDUNALDIAK

18

Ostirala

● **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak II. Gazte Elkarteen Azoka prestatu du gaur, bihar eta etzira-ko.** Gaur, Bilboko Arenalean, erakusmahaien banaketa egingo da. Bihar inaugurazioa, mahaingurua, bazkaria... Arenalean. Eszenatokian, berriz, Zugarramurdiren kontzertua, bertsolariak, antzerkia eta dantzaldia. Etzi, haurrentzako jolasak eta musika klasikoa.

22

Asteartea

● **Gasteizko Haur Literatur Topaketen barruan, Mikel Garmendiaren «Belle, Landetako sirena»** ipuina landuko dute haurrek gaur eta etzi, 18:00etan, Gasteizko Kultur Etxean. Bihar, berriz, **Joxe Arratibelen «Kontu Zaharrak».**

LEHIAKETAK

21

Astelehena

● **Orixeren omenez, IX. Bertso-Paper Lehiaketa** antolatu dute. Lehiaketa hi-



Euskal Kultur Erakundeak, **hilaren 19 eta 20rako, Ondarearen Egunak** deitu jardunaldien hirugarren edizioa antolatu du Irisarrin. Aurtengo gai nagusia euskara da. Lehen

Indalecio Ojanguren IX. Argazki Lehiaketa antolatu dute Eibarren.

Edonork har dezake parte sariketan. Gaia librea da, baina gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta beste hiru koloretan aurkez daitezke. Argazkien neurriak: 30 x 40 zentimetro, 40 x 50 zentimetrotako kartulina euskarritzat dutela. Egile bakoitzak izen bera jarri beharko die —lanaren atzealdean— aurkezten dituen argazki guztiei. Kartazal batean, izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia jarri behar dira. Lanak ondoko helbide honetara igorri behar dira: Indalecio Ojanguren IX. Argazki Lehiaketa, Kultura Saila-Eibarko Udala,



Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar. Gogoratu, baina, urriaren 23an amaituko dela lanak aurkezteko epea.

ru mailatan banatu dute: 14 urte artekoak, 15 eta 20 urte artekoak eta 21 urtetik gorakoak. **Lanak bidaltzeko epea gaur amaituko da.** Honako helbidera igorri: Orexako Udala, Orixe Bertso-Paper Lehiaketa, 20.490 Oresa.

MUSIKA

18

Ostirala

● **Bilboko Kafe Antzokian** bi musika-emanaldi izango ditugu asteon. Gaur, Ciberria delakoaren barruan, **La Taberna del Piratak eta Victor Nublak** kontzertu-performaceak emango dituzte 20:00etan. Ondoren, Madrilgo Kasbah. Hilaren 24an, berriz, **Niko Etxartek «Gili-gilikatzen haüt»** diskoaren aurkezpen kontzertua eskainiko du 22:00etan.

● Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean, **Eduardo Baranzano gitarr-joleak kontzertua** emango du arratseko 20:00etatik aurrera.

● Getxoko Udal Kontserbatorioan **Florin Ionescu-Galati biolin-joleak eta Viorica Radoi piano-joleak** kontzertua eskainiko dute gaur arratsean.

19

Larunbata

● «Ekaitza» aldizkariaren eta presoen aldeko kontzertua antolatu dute Uztaritzen 23:00etan. **Sustraiak, Beltez eta Spoken Away** taldeen doinuak entzun ahalko ditugu.

● **Sex Museum** madrildarrek kontzertua eskainiko dute Lasarte-Oriako Zulo tabernan gaueko 23:00etan.

23

Asteazkena

● EHUren Leioako kanpuseko Areto Nagusian, **Kepa Junkerak bi kontzertu** emango ditu gaur: lehenengoa 12:00etan izango da, eta 17:00etan bigarrena.

SOLASALDIAK


19

Larunbata

● «Bigarren Errepublika eta gerra» gaiaren inguruan hitzaldia eskainiko du gaur V. Bikuñak Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etatik aurrera izango da entzungai.

Denborapasa

Gurutzegramama



EZKER ESKUIN: 1.- Hondarrak. 2.- Araudi. Bokala. 3.- Ukitzearen ondorio. Nire. 4.- Jatorri atzikia. Iparraldean, gutxi-gora-behera nor. 5.- Gipuzkoan, zatiz. Zuhaitz mota. 6.- Saskibaloian edota eskubaloian jokalaria batek betetzen duen lanari ematen zaion izena. Beharra. 7.- Elikatzeko baliagarri edo substantzia. 8.- Sodioa. Zuhazpeko babesgune. Bokala. 9.- Bokala. Sexu eme. Norbait. 10.- Emakume izena. Musika nota. Har ezak!

GOITIK BEHERA: 1.- Aukeraketak. 2.- Zango atala. Oxigenoa. 3.- Kenyako hiriburua. Ez eme. 4.- Daukat. Errodapia. 5.- Itsas arrain. Ezin aipa daitekeena. 6.- Suari dario. Alkoholen bukaeran. Galioa. Kontsonantea. 7.- Igerian egiten duen pertsona. 8.- Hura niri zitzaidan, eta ni hari ... 9.- Bokala. Errana. Ogi, hitz elkarketan. 10.- Modu atzikia. H₂O. Zoro.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.

8 letra

Adobazko
Astakilo
Batasuna
Kaparrak


7 letra

Egutegi
Erkidea
Maizter
Tropela

4 letra

Aran
Atea
Azak
Begi
Biba
Deia
Edan
Ezik
Gora
Igor
Irri
Irun

Izar
Jazo
Kale
Lain
Meta
Meza
Nahi
Oion
Okak
Seme
Tsar
Zian



2 letra

DI
Ej
Eh
Ib
On
Re
St
Ti

3 letra

Are
Dar
III
Izu


ERANTZUN zebakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Gipuzkoako hiri baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

		Eragiketa aritmetikoa		Damuta- suna		Elkartu- suna		
		Ganibetak		Eguneroko erosle		Nortasun agiria		Katilua
				3				
Janaria	Gabezia		Setati					
Eliz-zere- moniak	Iruritako		Potasioa					
Garoa			Suari dariona			Euskal atzikia		
Ald. eta infin. ukitu			Musika nota			Azkenekoa		4
			Pinu mota			Egur		
			Jainko egiptoarra			Ergel		
Tigazun karraskari						Sodioa		
Qinarrizko janaria						Ordu		
			Bokala		Joaki naiz			
	2		Modua		Errep., gorotza			Ihardun
Kanpo		Bokala		Gizon izena				
Lapurdiko herria		Kontso. bikoitza		Iparretarak				
							Röntgen	
							Kontso- nantea	1
Garaiak					Ondo			
								5

Hieroglifikoa



Zer behar da sagardoa egiteko?

Aurrekoastekosoluzioak

DERIO

Gurutzagrama

●	B	●	E	●	K	●
M	A	N	T	E	L	A
●	U	●	M	●	B	●
O	K	Z	I	T	A	N
O	K	Z	I	T	A	N
●	A	●	L	●	E	●
A	L	D	A	R	O	●
●	O	●	I	●	N	●
I	N	K	●	I	R	●
●	D	●	E	●	D	●
Z	O	R	R	I	A	K
●	A	●	R	●	O	●



EZKER ESKUIN: 1. Askatasuna. 2. Laukote. Ol. 3. Dira. Enara. 4. Alaba. Adei. 5. Kaitolak. Na. 6. U. A. Or. II. 7. Ni. Okak. Za. 8. Trapagaran. 9. Zakuto. Eki. 10. An. Suak. Os. GOTIK BEHERA: 1. Aldakuntza. 2. Salla. Iran. 3. Kurraiz. Ak. 4. Akabo. Opuak. 5. Toñ. Alokatu. 6. Ate. Aragoia. 7. Senak. Ka. K. 8. U. Ad. 1. Re. 9. Norentzako. 10. Alaiak. Anis.

●	O	L	A	K	●	B	A	B	O	●
A	Z	A	L	Z	●	B	I	P	I	●
D	E	B	E	K	U	A	●	P	I	L
I	N	●	M	A	R	A	T	I	L	A
N	●	S	A	I	A	●	X	L	●	R
●	L	A	N	A	●	J	A	D	A	●
I	●	R	I	●	B	A	H	U	●	A
G	A	R	A	P	E	N	A	●	G	R
E	R	E	●	E	S	A	L	D	I	A
L	A	R	U	●	O	●	A	I	Z	U
●	N	A	N	O	●	U	K	O	A	●

Kate hitzak

Hieroglifikoa:
LAURETAN

ERROBIKO PIRAÑAKO — Komikia



Urriko iraultza nostalgikoa

URRIA, hilabete boltxebikea. 79 urte dira 1917ko udazkenean Leninen kideek San Petersburgeko Neguko Jauregia hartu zutenetik. Urriko Iraultza, 74 urtez Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean (SES) ospatu izan dena eta egun, 79. urteurren honetan, Errusian ponpa handirik gabeko ekitaldia bihurtua dena eta oposizioan diren nazional-komunistek soilik ospatzen dutena.

Boltxebikeek Sobieten Batasuna aldarrikatu zutenetik erabat baldintzurik garatu behar izan zuten SESBren eraikuntza eta beren proiektu politikoaren eraketa. Sobietarren gobernu berriak hasieratik jasan behar izan zituen kontrairaultzaileen erasoak. 'Zurien' erasoak lehenbizi; nazioarteko 'Entente' zeritzaion haren laguntzak, berriz, areagotu egin zuen gerra zibila. Gero, nazioarteko blokeo ekonomiko eta komertziala, gosetea eta mixeria are larriagoak egin zituen; Bigarren Mundu Gerratean, 'Ardatza' osatzen zuten indarren erasoak. Hogei milioi herritar hil ziren gerrate hartan eta goitik behera suntsitu zuen SESBen ekonomia. Segidan, Gerra Hotza eta armamendu lasterketa, ekonomia sobietarraren garapena gogor baldintzatu zuena. Horren ondorioz desegin eta desagertu zen, 1991eko abenduan, ordu-rako maldan behera zebilen Sobiet Batasuna.

SOBIETARREK 1917an garaile suertatu zen Iraultza babesteko neurriak hartu behar izan zituzten. Estatuaren zeregina gogor indartu zen, polizia-estatu bilakatzeraino. Eta horrekin batera burokrazia ere nabarmen hazi zen; aparatxik edo burokratatz josi zire bai Alderdi Komunista bai Estatu Sobietarra.

Eta Sobiet Batasunaren bilakaera aztertuz gero, 74 urte horietako zenbait aro eta jokabide kritikatzeko arrazoirik ez litzaiguke faltako. Baina kontuan izan dezagun beste honako hau ere: 1991tik aurrera argitaratzen diren kritika guztiek Iraultzaren sasoi ilunak besterik ez dituztela aipatzen. Egun, Iraultzak 74 urtetan eraikitakoa bat batean desagertu zela pentsa dezakegu. SESBren desagiteak eta desagertzeak bertan ziren gizarte eta estatu oro kaos hutsean murgilarazi zituen. Alde batetik, zorionekoak izan ziren hainbat herriren independentzia prozesuak. Pozik ziren mundu osoko estaturik gabeko herrialdeetako borrokalaria. Bestetik, desegite prozesuak sobietarren lurralde antolamenduaren 'keria' guztiak erakutsi zizkigun. SESBren barnean bizi ziren herri eta nazioen mugak ez zituzten inondik ere kontuan izan agintariak. Herri eta populazio antziz nahasketa bultzatu zuten; antolakuntza administratibo hutsa zen hura. Eta haren ondorio dira gaur egungo hainbat gatazka bortitz eta odoltsu: Txetxeniakoa, Osetiakoa, Transdniestriakoa, Tadhikistangoa... SESBren errepublika nagusia zenak, Errusiak, bere botere eta kontrol maila, kosta ahala kosta, gorde nahi izan ditu, estatu berrien kalterako beti ere.

EKONOMIKOKI, SESBan eratu-tako egitura sozio-ekonomikoak erabat suntsitu dira, Merkatuko lehen ezarketaren eta politika neoliberalaren eraginez. Sobietarren garaian bizitza maila eskasa bazen ere lehen mailako beharrak bederen asetzen zituen sistemak. Egoera berrian, aldiz, milioika langabetu, jubilatua pentsiorik gabe, gazteak etxebizitzarik lortu ezinik eta gosetea nagusi, horixe da panorama. Merkatuen antolakuntzak mafien eskuetan daude eta estatuaren egitura osoa talde ilun eta zikinen esku. Finean, gobernu, estatu egitura eta gizarte dauzkate bahituta mafiek.

1996ko urrian Iraultzaren urteurrena ospatzekotan direnek geroz eta errazagoa dute indarrak biltzea egoera honi alternatiba aurkeztuz. Baina alternatiba horren mugak egungo estatus politikoari egokitu behar lehenbizi, klaseen arteko borrokan oinarritutako doktrina haren egokitze taktikoa beharko egin.

1917KO Iraultzaren izpiritua 74 urtetan itzali zen, batez ere burokraziaren eraginez; eta egungo ezkertiarren freskotasuna antzinako haren adina ez izan arren egia da askok nostalgiaz begiratzen dutela sasoi hartako Sobiet Batasuneko gizarte, nahiz eta orain koka-kolak eta hanburgesak eskuratzea errazagoa izan. Ikusi egin behar aurrerantzean zer nolako emaitzak lortuko dituzten Iraultzaren urteurrena ospatzen duten oposizio alderdiek. Eta ikusi egin behar ea gai diren Leninek eta boltxebikeek izan zuten adore berberaz gizarte justu eta demokratiko baten bidea jorratzeko.

GABIREL EZKURDIA

IPESeko nazioarteko mintegiko



Akelarre
Gauero zuzenean.
1.425 pta.



Anje Duhalde
Bakezaleak.
1.875 pta.



Eltzegor
Herrialde Berdean.
1.875 pta.




Txirim Mirri eta Txiribiton
Pailazo.
1.875 pta.




Drindots
Made in plazan
1.875 pta.




Egan
Meta eginez
1.875 pta.



Charles Darwin
Eboluzioaren Profeta
Irati Azkune Mendia
1.150 pta.



Albert Einstein
Munduari buruzko nire pentsamoldea
1.000 pta.



Elikadura eta osasuna
Gaiak.
950 pta.




Gazteak eta sexualitatea
Gaiak.
950 pta.



Euskal historiaren 15 gertaera nagusi
Gaiak.
950 pta.



Lamiak, sorginak eta jainkosak
Julio Caro Baroja
1.400 pta.




Nafarroa erdi aroan
Béatrice Leroy
1.150 pta.




Jon Alonso
Katebegi galdua
1.350 pta.



Harkaitz Cano
Beluna Jazz
1.300 pta.



Itxaro Borda
Bizi nizano munduan
1.300 pta.




Imanol Murua eta Humberto Unzueta
Suetena Belfasten
1.300 pta.

B E R R I A K



Zenbaki bizidunak
Didaktiker.
4.150 pta.




Euskal Gramatika osoa
Didaktiker.
5.100 pta.



Benetan Euskaraz 1. maila
Didaktiker.
3.885 pta.



Juan Luis Zabala
Galdu arte
1.350 pta.



Mikel Iburguren
Hemen gauak lau ertz ditu
900 pta.



Sorginak eta Euskal Herria
Gaiak.
950 pta.



*Hautatz gain, GAIK eta SUSA argitaletxeen, IZ disketearen eta DIDAKTIKER-en katalogoetako titulu ugari ditugu. Eskaiguzu zerrenda eta berehala eskuratuko duzu.

E S K A R I O R R I A

Izenburua	Prezioa	Aleak	Guztira

Kobratu beharreko kopurua

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN - DEITURAK

KALEA _____ ZBKIA. _____ SOLAIRUA _____ ESKUA _____

TFNOA _____ HERRIA _____ POSTA KODEA _____

HERRIALDEA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

KONTUTIK

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK _____ SINADURA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA _____ SUKURTSAL HELBIDEA _____

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia SINADURA

Euskal Kulturaren Agenda



ZURE ORDENADORERAKO PREST

DISKETE BAKAR BATEAN

Euskal Kulturaren Agenda
Agenda de la Culture Basque

Agenda de la Cultura Vasca
Resource Guide to Basque Culture